

#E'REFUXIATUAK

# Bizirik nago

Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako emakumeen  
erresistentzia-kartografiak.

**Itziar Gandarias Goikoetxea**



Clara, Sara eta Jeanneri,  
Beren mina eta aldi berean beren erresistentzia erakusten ausartzeagatik.

Haiei eta Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat emakumeri,  
egunero bizirik egoteko borrokatzen direnei.

Dokumentu hau prestatzen parte hartu dute Raquel Celis eta Verónica Álvarezek,  
eta María Fernanda Mejíaren laguntza izan dute testuen edizioan.

**CEA(R)** EUSKADI  
Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea

Kristo kalea 9B, 5  
48007 Bilbo  
Tel: 944248844  
[info@cear-euskadi.org](mailto:info@cear-euskadi.org)  
[www.cear-euskadi.org](http://www.cear-euskadi.org)  
Jarrai gaitzazu:



Argitalpen hau Creative Commons  
lizentziapean dago.

[https://creativecommons.org/  
licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es\\_ES](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es_ES)



**Argitalpenaren urtea eta lekua:**  
2017, Bilbo.

**Itzulpena:** Bakun Itzulpen eta  
Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

**Diseinua eta maketazioa:**  
Señora Milton.

**Lege-gordailua**  
BI-1262-2017

**Finantzazioa:**



# Aurkibidea

<b>Sarrera</b> .....	<b>06</b>
<b>1.- Metodología: Las producciones Narrativas</b> .....	<b>07</b>
1.1.- Prozedura eta zailtasunak.....	07
<b>2.- Irteeraren arrazoiak: Genero-arrazoiengatiko jazarpena</b> .....	<b>09</b>
2.1.- Clara: aske izan nahi zuen emakumea .....	09
2.2.- Jeanne: berriz sortutako lorea.....	10
2.3.- Sara:amets baten bila.....	10
<b>3.- Erresistentzien kartografiak</b> .....	<b>13</b>
<b>4.- Erresistentzien analisi psikosoziala</b> .....	<b>19</b>
4.1.-Jatorrian .....	19
4.2.- Bidaian zehar .....	21
4.3.- Helmugan.....	24
<b>5.- Amaierako gogoetak</b> .....	<b>26</b>
<b>6.- Narrazioak</b> .....	<b>27</b>
6.1- Clara .....	27
6.2- Sara.....	31
<b>Oharrak</b> .....	<b>37</b>
<b>Bibliografia</b> .....	<b>38</b>

# Sarrera

**GENERO-ERLAZIOAK** botere-eremu bat dira. Beraz, emakumeen aurkako indarkeria formak ulertzea gizartea bere osotasunean zer ari den zeharkatzen ulertzea da. Sistema patriarkalaren, kapitalistaren eta kolonialaren gaur egungo mihizatzeek Sita Segatok (2016) gerra informal garaikide berriak deritzona sortu dute, non emakumeen gorputza maskulinitasunaren ahalmena inskribatzeko egitura den. Emakumezkoak sexurako salerostea eta haiek mugaldero eremuetan eta Saharaz hegoaldeko Afrikako jatorriko herrialdeetatik Europara arte jasaten dituzten denetarik indarkeriek osatzen dituzte gerra berri informal horiek, eta haietan emakumearen gorputza gizonezkoen mende eta agindupean dagoela berresteko erabiltzen da.

Gaur egungo kapitalismo neoliberalaren euskarrietako bat espoliazioa izan da, edo David Harveyren (2004) terminologian, gabetze bidezko metaketa. Beraz, emakumeen bizitza mehatxatzen duen eta haiek menpean hartzearen, naturaren harrapakaritzan eta periferiako herrialdeen espoliazioan eusten den gizarte-eredu bat daukagu.

Silvia Federicik (2011) dioen moduan, emakumeen gorputzen kontrolaren auzia endemikoa da kapitalismoaren historian, hasieratik gaur arte. Jada XVI. eta XVII. mendeetan, Erdi Aroko sorgin-ehiza haietan, inoiz ez bezala jazarri zituzten emakumeak; Estatuak eta kapitalak eginahalak eta bi egin zituzten emakumeek beren gorputzetan eta sexualitatean zeukaten kontrola birrintzeko. Horrenbestez, emakumeen gorputzaren kontrola ez da auzi ekonomikoa soilik, auzi politikoa ere bada. Beste hitz batzuekin esanda, eta Federicik (2011) hausnartu zuen moduan, emakumea kapitalismoaren azken muga da. Horregatik da hain garrantzitsua emakumearen gorputzaren konkista, kapitalismoa horren mende dagoelako.

Beraz, sistema horrek, iraungo badu, kapitalaren metaketaren logikaren eta baldintza duinetan bizitzearen jasangarritasunaren arteko konpondu ezinezko gatazka ezkutatu egin behar du. Ezkutatu horrek azaltzen du emakumeen aurkako indarkeria ez dela ulertzen bizitza, eta zehazki, emakumeen bizitza edozein prezioan metaketaren logikaren mende jartzen duen gizarte-eredu bat egituratzeko ahalegin etengabeen parte dela. Edo, beste modu batean esanda, ez da ulertzen emakumeen aurkako indarkeria sistematikoki erreproduzitzen dela gaur egungo sistema kapitalista neoliberallean emakumeak menpean hartzeko.

Saskia Sassenek (2015) esandako moduan, ekonomia globala ez da ondoriorik gabe hedatzen; korporazio handien alde jarduten du, kanporatzearen eta habitata galaraztearen bidez. Gaur egun ere, alde batetik, lan-indarra ugaritzeko beharra du kapitalismoak, gero desjabetzeko, eta, bestetik, emakumeen gorputzen mende jarraitzen du, sistemak iraunaraziko badu. Logika horren pean, merkantzien mundu batean, emakumeen gorputzak gauzak bihurtzea, eta zehazki emakume pobreenen gorputzak, ezinbestekoa da helburu hori lortzeko. Rita Segatoren (2016:99) ustez, “krimenak eta legez kanpoko bitartekoen bidez kapitala metatzeak ohiz kanpoko izateari utzi zioten eta egiturazko eta egituratzaile bihurtu ziren politikan eta ekonomian”. Hau da, kapitalismoaren fase muturreko eta apokaliptiko honetan, lapurtzea, lekualdatzea, deserrotzea, esklabo bihurtzea eta ahalik gehien esplotatzea dira metaketarako bideak. Beraz, hor txerta daiteke emakumezkoak sexurako salerostea, emakumeen gorputzaren harrapakaritzaren gaur egungo forma gisa.

Horren haritik, emakumeak salerostea, alabaina, ez da soilik jatorria kulturen, gizartean edo politikan duen zerbait; beste ezer baino areago, merkatu-errealitate bat da. Merkatua, logika kapitalista eta patriarkalaren logikatik, nagusitu egiten da jabeen boterea dagoen une batean. “Jabetza” horretan, Segatoren (2016) hitzetan, gutxiengo batek irabaziak eta norberaren interesa maximizatzeko helburuarekin jarduten du. Pertsonak sexu-esplotaziorako salerosteko sare horien existentzia eta handitzea emakumeen eskaera gorakorraz elikatzen da, dela ezkontzeko, etxeko lanetarako edo sexu-langile izateko herrialde hartzaileetan, Europan batik bat. “Hegoaldeko herrialde” izenekoetatik emigratzen duten emakumeen %50 baino gehiagok biziraupeneko estrategia berriak bilatzera jotzen du berarentzat eta familiarentzat. Eta hori mota guztietako mugikortasuna babestu eta kapitalen, merkantzien eta kontsumoaren zirkulazioa sustatzen duen, baina pertsonen zirkulazio askeari oztopoak jartzen dizkion ustezko herrixka globalean. Hori guztia emakumeen gaitasun produktiboa eta afektiboa kolokan jartzearen truke.

Hain zuzen ere, ikerketa honen helburua izan da Saharaz hegoaldeko Afrikatik bidaiari ekiten dioten emakumeek bidea gaintzeko eta pertsonen salerosketako eta trafikoko sareen esplotazioari aurre egiteko garatzen dituzten biziraupeneko eta erresistentziako estrategiak erakustea eta nabarmentzea. Egozten zaien “biktima” kontzeptua, baliabideen hartzaile pasibotzat jotzen dituen eta beren kulturen ordena patriarkala erreproduzitzea egozten diena, zalantzan jarri eta ezagutzera eman nahi da. Aitzitik, oinarriko giza eskubideen zaurgarritasunen eta urratzeen historiek markatutako bizitzen protagonisten eta erresilienteen berregitetik abiatuko gara.

Aurkezten diren narrazioetan, bidean diren emakumeak direnez, “muga” elementua giltzarria izango da. Batetik, muga geografikoak daude, eta migrazio-bidean estatu-tako segurtasun-gorputzen eskutik eta trafikatzailen taldeen eskutik jasotzen dituzte erasorik okerrenak muga-espazio horietan, hain zuzen ere. Eta bestetik, gorputzaren mugak daude; eraso horiek jasaten dituen lurralde pertsonala izan arren, erresistentziak sortzeko balio duen leku borrokalaria era bada. ■

# Metodologia: Ekoizpen narratiboak

**NARRATIBAREN** ikuspegiak nabarmentzen du mundua narratibak eta narrazioek zeharkatzen dutela (Cabrujaet al.,2000); hau da, historien bidez ulertzen dugu elkar. Gainerako pertsonekin eta geure buruarekin ditugun harremanak narrazioaren bidez bizitzen ditugu (Gergen eta Gergen, 1983). Beraz, narrazioak ez dira gertatutakoa kontatzeko historiak soilik, oso garrantzitsuak bihurtzen dira baizik, esanahiaren eraikitaile diren aldetik.

Harold Goolishianen (1994:297) iritziz, “etengabe idazten eta berridazten dugun autobiografia bat gara” eta gure narrazioen bidez zentzua ematen diogu munduari eta geure esperientziari berari.

Narrazioak, beraz, ezin dira haien testuinguru sozio-historikotik isolatu. Joan Pujol eta Marisela Montenegrok (2013:16) dioten moduan, “gertatzen diren testuinguru soziokulturala erreproduzitzen, zalantzan jartzen, elikatzen, transformatzen eta ironiaz adierazten duten produkzioak dira (...). Errealitatearen eraginak dituzte, eta, aldi berean, zenbait modutan interpretatu eta irakur daitezke”.

Epistemologia feministek eta beste ikuspegi batzuek, soziokonstrukzionismoak edo ezagutza zientifikoaren soziologiak kasu (Gergen, 1985; Cabrujaet al.,2000), ezagutza zientifiko botere-erlazioek eta sortzen den testuinguruaren azpiratzeak zeharkatutako gizarte-praktikatzat hartzen dute. Hala, Donna Harawayren (1995) ezagutza kokatuen proposamen epistemologikoa urrundu egin zen positibismoaren ezagutza objektibo, neutral eta unibertsaletik, eta ikuspegi partziala eta kokatua aldarrikatu zuen.

Donna Harawayren (1995) ezagutza kokatuen proposamena abiapuntu hartuta, Marcel Balasch eta Marisa Montenegrok Ekoizpen Narratiboen proposamena garatu zuten 2003. urtean. Teknika metodologiko hori testu bateratu bat ekoiztean datza, ikertzaileen eta parte-hartzaileen arteko saio programatuak eginez, aztertu nahi den fenomenoari buruzko zenbait alderdiri buruz hitz egiteko, eta, ondoren, hizketaldia testu antolatu eta komunikagarri bihurtzeko.

Testu-bihurtze horretan, ez dira parte-hartzailearen hitzak jasotzen, haren ikuspegia nola irakurri nahi den baizik. Horretarako, parte-hartzaileek testua aldatzeko, zuzentzeko eta zabaltzeko aukera dute, sortutako narrazioa ontzat eman arte. Nabarmendu beharrekoa da testuaren egileak parte-hartzaileak direla, eta haiek erabakitzen dutela testuaren amaierako edukia eta hura nola adieraziko den.

Ekoizpen Narratiboen ezaugarri bat metodologia hurbilagoak sortzea da, parte-hartzaileek erraztasun handiagoa izan dezaten ikertzailearen (ikerketaren subjektuaren) eta parte-hartzaileen (ikertutako pertsonen) arteko erlazio hierarkiko hausteko.

“Josi”, “ehundu” edo “bidaiatu” narrazioak egiteko prozesua deskribatzeko metaforak izan daitezke. Ekoizpen narratibo bat egiteko, kontakizun bat logikaz albaindu behar da, landutako gaietatik abiatuta sortu diren ideiak antolatuz. Horrek ikertzaileen eta subjektu parte-hartzaileen arteko hausnarketa bateratuko prozesuak sortzen ditu, galdera-sortetako ohizko galdera-erantzun interakziora baino gehiago elkarrizketara edo solasaldira gerturatzen saiatuz. Horren haritik, Ekoizpen Narratiboek parte-hartzaileen ezagutza eta esperientzia ikertzailearen maila berean balioztatzen dituzte.

Narrazio bateratu bat sortzeko prozesu horrek baditu zailtasunak. Gure kasuan, bagenekien aurrez narrazioen gaia sentsiblea zela. Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorri, gaur egun Euskal Herrian bizi eta beren herrialdean edo bidaian zehar genero-arrazoiengatik jazarri dituzten emakumeen narrazioak jasotzen zen helburua. Ildo horretatik, narrazioak egitea zaila izan da eta ondoren azalduko ditugun zenbait muga izan ditu.

## 1.1.-Prozedura eta zailtasunak

Ikerketaren lehen fasea parte hartu behar zuten emakumeak identifikatu eta haiekin harremanetan jartzea izan zen. Horretarako, lehenik CEAR-Euskadik artatzen dituen pertsona migratzaile eta errefuxiatuen artean ikertu genuen. Ondoren, Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeekin lan egiten duten beste erakunde eta kolektibo batzuekin harremanetan jarri ginen. Eskertzen dugu hauek guztiek emandako laguntza: Munduko Medikuek, Auzolan, Hiesaren aurkako Bizkaiko Herritar Batzordea, Gurutze Gorria, Nos Unimos elkarte, Munduko Emakumeak, Ellacuría Fundazioa eta Mujeres con Voz, besteak beste.

Ez zen erraza izan bere esperientzia partekatze prest zeuden emakumeak aurkitzea. Lehen elkarrizketan parte hartu zuten emakume guztiak ez zeuden parte hartzeko une egoki batean. Kasu batean, emakume batek azaldu zigun ez zuela indarrik bizi izandako istorioen gogortasuna berriro bizitzeko. Eta beste emakume batek sexurako salerosketaren esperientzia oso hurbileko zuen artean, eta ez zen gai sentitzen atzera begiratu eta bere historia kontatzeko.

Azkenik, hiru emakume prozesu osoan parte hartzeko prest agertu ziren: Nigeriako bi emakume eta Kamerungo bat. Haietako bakoitzarekin bilera bat egin genuen ikerketaren helburua, proiektuaren esparrua eta CEAR-Euskadi erakundearen ezaugarriak azaltzeko, eta saioak nolakoak izango ziren eta narrazioak

nola sortuko genituen adierazteko, argi eta garbi utzita saioak bertan behera utz zitzaketela edozein unetan. Alderdi hori asko zaindu da lan guztian zehar, bai saioetan bai saioen ondoren ere; izan ere, saioaren ondoren, telefonoz dei egiten genien, nola zeuden jakiteko.

Saioan hiru gai landuko genituela azaldu genien: (i) *irteera*; bidaia egin aurretiko bizitzari, haurtzaroari, herrialdeko testuinguru politikoari eta ekonomikoari buruz hitz egitea, handik ateratzera zerk bultzatu zuen eta bidaiaren itxaropenak nolakoak ziren. Bigarren gaia (ii) *igarobidea* da. Bere baitan hartzen zituen horrek bidaiaren izandako esperientzia, zailtasunak eta haiei aurre egiteko estrategiak. Azkenik, hizketaldiaren gaia (iii) etorrera izan zen, eta alderdi hauek azpimarratu ziren: eragina, talka kulturala, gaur egungo gizarte-laguntzak, gizarte-erakundeekiko eta -erakundeekiko harremana, eta egoerari aurre egiteko eta gainditzeko gaur egungo mekanismoak.

Egindako hiru narrazioetatik bi bakarrik argitaratu ditugu, eta dokumentu honen bukaeran kokatu ditugu. Parte-hartzaile batek ez zuen nahi izan haren historia osoa argitaratzea, gaur egun mehatxupearan dagoelako, baina bere narrazioaren zati batzuk erabiltzeko baimena eman digu. Guztiek gezurrezko izena erabili dute narrazioan eta testu bakoitzaren izenburua ere haiekin adostu genuen.

Narrazioa sortu eta adosteko saio bat baino gehiago egin beharra izan da zailtasun handienetako bat. Parte-hartzaile batek, lehen saioaren ondoren, lana aurkitu zuen Bilbotik kanpo eta ezinezkoa izan zen beste saiorik egitea. Kasu horretan, narrazioa telefonoz eta posta elektronikoz balioztatu da.

Beste muga bat hizkuntza izan da. Saioetan nahi zuten hizkuntzan adierazteko aukera izan arren, egoera emozionalen berri emateko batik bat, lan handia eman digu azken narrazioa adostea. Haietako asko hizkuntza ikasten ari dira gaur egun, eta, beraz, ez zituzten gaztelaniazko behar adina hizkuntza-baliabide testuetan aldaketa handiak egiteko. Gainera, oso egoera latzak gogora ekartzearen ondorioz sortzen ziren isiluneak, haizea hartzeko etenaldiak, malkoak, negarrak eta barreak hitzekin nahasten ziren. Dena den, narrazioan zehar zaila izan da zati horren berri ematea. Horregatik, narrazioak testu bihurtzean, honelako galderak sortu ziren: *Posible al da guztia hitzen bidez adieraztea? Posible al da mina kontatzea?*

Horri dagokionez, isilik egoteko eskubidea ere bazegoen, eta horrek aukera ematen zien emakumeei zer kontatu nahi zuten eta zer ez erabakitzeke; eta gainera, kontatutako guztia hartuta azken narrazioan zer sartuko zen ere aukeratu zezaketen.

Azkenik, saioak amaitzean, parte-hartzaileekin hitz egin genuen beren historia kontatzeak berengan zer eragin izan zuen eta saioan zehar nola sentitu ziren jakiteko. Baina, batik bat, saioaren amaieran nola sentitzen ziren esateko aukera eman genien. Hiru emakumeek esan zuten ezin zutela sinetsi bi ordu baino gehiago etengabe hitz egiten nola egon ziren; batek hiru ordu eta erdi pasatu zituen. Bizitako egoera gogorrak kontatzean oso intentsitate sendoa aipatu zuten, baina,aldi berean, hiru parte-hartzaileak harrituta geratu ziren beren historia kontatzen hainbeste ordu pasatu izanagatik. Batzuek lasaitasun psikologikoa sentitu zuten ondoren; izan ere, kasuetako batean, adibidez, parte-hartzaileak ez zion berea inori kontatu, CEAR-Euskadiko psikologoari izan ezik. Horren haritik, gertatutakoa lantzeak on egin zion, berak aitortu zuen moduan, hitz egitea neurri batean bizitakoa berriro bizitzea den arren:

**“Azalean dudan guztia husten badut, oso zatarra da. Gogoratzen naizen bakoitzean negarrez hasten naiz, ezin dut ekidin. Ez dakit nola bizi horrekin (...). Nire historia kontatzeak on egiten dit, hori esan dit psikologoak. Batzuetan ezin dut asko hitz egin. Nire herrialdeko askok ez dakite nire historia” (Jeanne).**

Fiona Ross (2003) eta Kimberly Theidon (2009) egileek emakumeen isiluneak aztertu dituzte, eta ohartu dira emakumeen erabaki eta estrategia aktiboak izan daitezkeela beren narrazioen esparrua ez denean norberaren esperientziara egokitzen, beren testigantzak huskeria edo biktimismo gisa adierazten dituztelako. Kimberly Theidonen (2009:121) ustez, emakumeak normalean derrigortuta egoten dira beren esperientziak sexu-zaugarritasuneko eta degradazioko hizkuntza batean kontatzera, heroismo femeninoaz hitz egiteko espazio gutxi izanik. Horregatik galdetzen du: “Zer esan nahi du bere bizitza inoiz justiziarik egingo ez dion hizkuntza batean kontatzera behartuta egoteak?”.

Horregatik, ikertzailearen eta parte-hartzaileen artean kontuz jardutea eta elkarrekin konfiantzazko giroa sortzea funtsezkoak izan dira, alde batetik, emakumeen birbiktimizaziorik ez sortzeko, eta, bestetik, emakumeak entzun eta aitortuko dituen eta, batik bat, zer kontatu eta nola kontatu erabakitzeke askatasuna izateko espazio eroso bat sortzeko ■



# Irteeraren arrazoiak:

## Genero-arrazoiengatiko jazarpena

**ASILO-ESKUBIDEAREN** nazioarteko babesaren ikuspuntutik, jazarpena esaten zaio giza eskubideak larriki, sistematikoki edo etengabe urratzeari. Izan ere, genero-arrazoiengatiko jazarpena (aurrerantzean GAJ) gertatzen da oinarrizko eskubideen urraketek zerikusia badute pertsona bati sexu jakin batekoa izateagatik eta lehentasun sexualagatik esleitzen zaion rolaekin. Diskriminatzea eta tratu desagokia ematea jazarpenaren baliokide izan daitezke, eta beraz, kasu horietan beharrezkoa izan daiteke nazioarteko babesa. Ordena patriarkalak ezarritako gizarte-arauak eta genero-rolak betetzen ez dituzten emakumeak eta heteronormatibitateari egokitzen ez zaizkion genero-identitatea edo lehentasun sexuala duten pertsonak baztertu egiten dira eta jazarpena egiten zaie, haien sexualitatea, ugalketa-ahalmena eta gorputza kontrolatuz.

Lege eta arau sozial, erlijiozko edo kultural baztertzailak eta lege eta arau horiek urratzeagatik neurritz kanpoko zehapenak edo zigorrak ezartzea, eremu publikoan edo pribatuan, GAJ jasaten duten pertsonak kontrolatzeko erabiltzen diren mekanismo batzuk dira.

Emakumearen aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Deuseztatzeari buruzko Konbentzioaren Batzordearen arabera (CEDAW dira ingeleseko siglak), generoarekin lotutako jazartzeko moduak emakumearen kontra emakume izate hutsagatik zuzenduta daudenak dira, edo emakumeei beste inori baino askoz gehiago eragiten dietenak. CEDAWek dio emakumeen aurkako indarkeria emakumeek pairatzen duten jazarpenetako forma nagusietako bat dela; nazioarteko babesa izateko legezko arrazoi hauek bereizten ditu: emakumeen genitalen mutilazioaren mehatxua; behartutako ezkontza edo goiztiarra; indarkeria-mehatxua edo "ohore-delituak" deritzenak; emakumeak sexu-esplotaziorako salerostea; azidoa erabiliz egindako erasoak; bortxaketa eta beste sexu-eraso batzuk; bikoteetan izaten diren indarkeria mota larriak; heriotza-zigorra ezartzea edo justizia-sistemetan agertzen diren beste zehapen fisiko batzuk.

Lan honetan bildu ditugun historiak lehentasun sexualagatik, behartutako ezkontzari uko egiteagatik eta sexu-esplotaziorako hartu izanagatik GAJtik bizirik atera diren hiru emakumerenak dira.

### 2.1.- Clara: aske izan nahi zuen emakumea

Behartutako ezkontza ezkontideetako batek behintzat bere baliozko baimena eman gabe egiten dena dela esan genezake. Adin nagusiko edo adin txikiko pertsonen artekoak izan daitezke. Baimenik eza ezkontide batek edo senideek beraiek egindako indarraren eta intimidazioaren ondorioa izan daiteke. Nazio Batuek Giza Eskubideen urraketatzat hartzen dute behartutako ezkontza, banakoaren askatasunaren eta autonomiaren printzipioak urratzen dituelako. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 16. artikulua hau dio: "Ez kongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik".

Oso adin txikitan ezkontzera behartzea herrialde, erlijio eta etnia askotan sarritan gertatzen den praktika bat da. Jatorri kulturala duela uste da eta ez dago inongo berriazko erlijiozko agindutan oinarritik duenaren ebidentziarik. Clara Nigeriako iparraldeko emakumea da, familia musulman batean jaiotakoa, eta han 10 urterekin ezkontzen dira:

**"Iparraldean xaria daukagu. Horrek esan nahi du emakume guztiok behartuta gaudela beloa jantzita ibiltzera eta agintzen digutenarekin ezkontzera. Ezin dugu motoan ibili edo gona jantzi. 10 urteko haurrak ezkontzera behartuta gaude(...) Erritu bat da. Aurkezpena eta afari ofiziala egoten da; lehenik familiarekin, eta ondoren, gizona aurkezten dizute" (Clara).**

Ezkontzera behartzen dituzten neskatoak gizonetikiko sumisioak eta menpekotasunak markatutako errealitatean harrapatuta geratzen dira. Normalean, etxeko lanak eta sexu-lanak egitera behartzen dituzte, beste eskubide batzuen urraketa jasateaz gain; adibidez, osasunerako eskubidea, hezkuntzarakoa, eta askatasun fisikoa eta psikologikoa. Emakumeen aurkako indarkeria forma bat da, beren borondatea erabat ezabatzen duelako, beren lehentasunak alde batera utzi eta emakumeak familiaren edo komunitatearen jabetzat hartzen dituelako.

Aurre egiten dieten emakumeek, Clarak kasu, ezkontzaren derrigortasunak desbideratzeko estrategiak bilatzen dituzte. Bere kasuan, ezkontza-proposamenak ahizpengana desbideratzeak eta unibertsitateko ikasketek inposizioaren maniobra atzeratzeko balio izan zioten. Hala ere, karrera amaitu zuenean, aita are gehiago tematu zitzaion:

**"Unibertsitatean azken mailan nenbilela, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasten, egun batean aita etorri, eta esan zidan jada ezkontzeko prest nengoela. Gizon bat ekarri zidan, probintziako senataria, 52 urtekoa. Nik 20 urte nituen. Hau esan nion: 'Aita, ez dut ezagutzen eta'. Eta berak esan zidan politikari boteretsua zela, 3 emakume zituela, baina bakar batek ere ez zuela ikasketarik. Hau esan zidan: 'haren emaztea izateko aurkeztu behar duzu, ikasketak dituzulako, eta bera politikaria da eta asko lagunduko dizu nahi duzun lana aurkitzen'. Hitz egiten duenean, ez duzu erantzun behar, beti baietz esan behar diozu guztiari".**

Orduan, esan nion: ‘ongi da, pentsatuko dut’. Baina erantzun zidan ez nuela ezer pentsatu behar eta finkatutako egunean agertu behar nuela. Egun hartan eztabaidan jardun nuen aitarekin. Gizon zaharra eta itsusia zela, eta horrez gain, hiru emazte zituela esan nion. ‘Ez naiz berarekin ezkonduko’, esan nion. Eta aita sutan jarri zen. Ni konbentzitzen saiatu zen, esanez azkena izango nintzela, gustukoena, eta ez zitzaidala ezer faltako. Eta erantzun nion ni jadanik lanean ari nintzela eta ez nuela gizon hura behar. Ez zen aitari aurre egiten nion lehen aldia. Ordura arte nire ahizpen bidez iskin egin ahal izan nion. Lehenago ere etorri zen negozio on bat zuen pertsona garrantzitsu bat ezkontzeko eskatzera. Nire ahizpak gustuko zuela esanda iskin egin nion. Horrek salbatu ninduen. Baina, oraingoan zailagoa zen. Ez neukan ihesbiderik” (Clara).

Une hartan bertan, Espainiako estatutik Nigeriara deportatu zuten eta ziegan zegon mutil bat ezagutu zuen Clarak. Clarak lagundu egin zion, eta mutilak Europaz hitz egin zion eta Clarak bertan lana aurkitzeko aukerez, ikasketak zituelako. Aitak ekin eta ekin jarraitzen zuenez eta eztabaidak areagotzen ari zirenez, Clararen aukera bakarra herrialdetik atera eta Europarako bidaiari ekitea izan zen:

“Anaiaren lagun batek esan zidan Espainiatik deportatu berri zuten mutil bat ziegan zeukatela eta ea baneukan harentzako arroparik. Lehen, Nigeriara bueltatzen zintuztenean, isuna ordaindu behar izaten zen ateratzeko. Nik arropa eramanez nion, eta hala ezagutu nuen. Europari buruz hitz egiten hasi zen. Esan zidan Marokotik Europa oso hurbil zegoela, eta nik, ikasketak nituzenez, ongi bizitzeko aukera izango nuela. Niri, aitarengandik oso behartuta sentitzen nintzenez, Europara joateko gogoia sartu zitzaidan. Eztabaida latza izan genuen eta ez nuen beste irtenbiderik aurkitu. Gizon horrekin ezkondu edo Europara nindoan.” (Clara) a Europa. *Discutíamos mucho y entonces no vi otra salida. O me casaba con ese hombre o me iba a Europa.” (Clara)*

## 2.2.- Jeanne: berriz sortutako lorea

Gizartean nagusi diren kanonetatik urruntzen diren lehentasun sexualak edo genero-identitatea duten pertsonak bereizkeria, bazterketa eta indarkeriaren biktimak izan daitezke komunitatean eta familian.

Herrialde askotan, gobernuko agintariek LGTTBI (lesbiana, gay, transexual, transgenero, bisexual eta intersexualak) pertsonak jazarri eta diskriminatu egiten dituzte aktiboki, beren lehentasun sexuala edo genero-identitatea dela eta.

Kamerunen, Jeanneren jatorrizko herrialdean, homosexualitatea judizialki zigortzen da eta bost urtera arteko kartzela-zigorra ekar dezake. Homosexualitatea “sendatu” beharreko gaixotasuntzat hartzen da gizartean, eta zuzentzeko bortxaketez gain, gizarte-gaitzespena eta harrikatzeen bidezko herri-justizia ere existitzen dira:

“Nire herrialdean, zigor-kodeak homosexualitatea zigortzen du. Ez dago soilik legez zigortuta, herri-justizia ere badago, eta jendea zure bila joaten da eta harrikatu zaitzakete. Ez bada polizia etortzen, gizarte-zigorra egoten da. Kontuz ibili behar da, inork ez jakiteko; izan ere, salatu zaitzakete” (Jeanne).

Gizartean existitzen den gizarte-bazterketaren sentimenduak errudun izatearen eta egin behar ez den zerbait egitearen sentsazioa sortzen du. Horri, ezkutuan eta isiltasunean gorde beharra gehitu behar zaio. Jeannek nabarmendu zuen ezinezkoa gertatu zitzaiola adin txikia zuela emakume batekin izandako lehen sexu-esperientzia inori kontatzea, aurre egiteko eta esperientzia hori psikologikoki integratzeko baliabideak izateko zaurgarritasun-egoeran kokatzen zuelako bere burua. Horregatik, gertatutakoa ezabatzeko eta ahazteko modu bakarra mutil batekin sexu-harremanak izatea zen:

“Nik han ez nuen inoiz inorekin hitz egin emakume batekin izandako lehen sexu-harremanari buruz. Oso gaztea nintzen eta gauza batzuei buruz hitz egiteko lotsa handia nuen. Sexu-esperientzia bat izan nuen neska batekin. Pixka bat zikina sentitzen nintzen eta oporretan barnetegitik atera eta etxera itzuli nintzenez, aldatu nahi nuen, normala nintzen edo ez jakiteko. Gaizki sentitzen nintzen gertatutakoagatik eta mutil batekin egon nahi nuen, neskekin izandako esperientzia ahazteko” (Jeanne).

Jeanne salatu egin zuten beste emakume batekin harreman homosexual bat izateagatik, eta polizia haren bila joan baino lehen, herrialdetik alde egitea erabaki zuen. Une hartan, ez zuen Europara iristeko asmorik, Afrikan bertan geratu nahi zuen:

“Niri, hasiera batean, ez zitzaidan bururatu Europara etortzea. Aljeriara edo Marokora joatea pentsatu nuen. Ez nekien Europara berehala iristeko aukera nuenik” (Jeanne).

LGTTBI pertsonak eta haien familiak oso baztertuta egoten dira sarritan, eta gizartean eta beren komunitatean isolatuta. Komunitateko ostrazismoak gizarte-aukerak galtzea eragin dezake, gehien maite dituzten pertsonen eta gertukoenen baliabideak eta babesa galtzea. Jeanneren kasuan, haren familia publikoki jazarri dute urte hauetan, irainen bidez eta kalean pintaketak eginez:

“Gogorra izan zen, familia iraintzera etortzen zirelako. Etxean pintaketak egiten zituzten, irainak idatziz. Nire ama azokara joaten denean, jendeak oraindik iraindu egiten du nire kontura. Amaren familiako jendeak ere iraindu izan du, biltzen direnean” (Jeanne).

## 2.3.- Sara: amets baten bila

Sistema patriarkalaren eta kapitalismoaren biktima nagusi diren emakumeei bereziki eragiten die pobrezia, gizarte- eta ekonomia-desberdintasunek, bai eta pertsonen gaur egungo merkantilizazioaren fenomenoak ere. Horregatik, askotan, emakumeek beraiek ekiten diote migrazio-bideari, familia eta komunitatea zaintzeko “berezko” ardura duten aldetik.

Sara Nigeriako hegoaldeko emakume bat da, Benin City hirikoa, Nigeriako Edo estatuko hiriburukoa, eta han, ohikoa da emakumeak sexu-esplotazioarako salerostea. Familiaren pobrezia-egoerak bultzatu zuen herrialdetik alde egitera:

“Nire aita jostuna zen eta askotan ez zuen alokairua ordaintzeko adina diru izaten. Ama ile-apaintzailea zen eta bost gauza saltzen zituen kiosko batean, baina ez zuen ia irabazirik ateratzen. Horrekin bizi ginen. Astebururo nire anaiak herrira etortzen ziren, amonaren etxera, haren baratzetik elikagaiak lortzera, nekez iristen zitzaigulako. Eta niri jatea gustatzen zait; ama eta anaiak ohitu egin ziren, baina niri gorputzak gehiago jatea eskatzen zidan oso txikitatik. Han dirua duenak boterea du. Dirua badago, baina desberdintasun handiak daude. Boterea dutenek postu garrantzitsuak haien familiakoei ematen dizkietelako; guztia oso pertsona gutxiren artean banatzen da. Nire herrialdean, familia pobre batean jaio bazara, ez duzu etorkizunik. Amak pena handia ematen zidan, dendatik itzuli eta etxean jatekorik ez zegoenean aitak jo egiten zuelako. Afrikan gizonak jo egiten dute. Nik oso gaizki neraman hori. Ez zitzaidan gustatzen aitak ama jotzea. Egunez egun gero eta pobreagoak ginela eta amak asko sufritzen zuela ikusten nuen, eta lagundu egin nahi nion” (Sara).

Pobrezian eta beharrian ekonomikoko egoeran, emakumeek indarkeria jasateko arriskua handitu egiten da. Sararen kasuari erreparatuz, emakumeen aurkako indarkeriak dimentsio ugari dituela ohartuko gara. Lehenik, egiturazko indarkeria, familiaren pobrezia-rekin lotuta dagoena, non ia jatekorik ere ez duten. Bigarrenik, *indarkeria sinboliko-kulturala*, emakumeek gizartean eta kulturaren izaten duten diskriminazioaren eta balio-galeraren adierazlea. Eta azkenik, indarkeriaren *dimentsio zuzen* bat, gizonak emakumeak jotzea normalizatzen hartzen duena.

Nigeriatik ateratzeko migrazio-mugimenduak eta horrek emakumeak sexu-esplotazioarako salerosketa-aren fenomenoarekin duen lotura ulertzeko beste faktore garrantzitsu batzuk hauek dira: batetik, Munduaren Hegoaldeko emakumeen gero eta eskari handiagoa Europako sexu-merkatuak, eta bestetik, Europako hiri handietako bizimoduaren idealizazioa. Rita Segatoren (2016) ustez, “erakarpen-faktore” hori gaur egun nagusi den ugaritasunaren ideiarekin lotuta dago eta garai historiko honetako eratzak dira. “Iparraldearen fetixismoa” da, “merkantzien erreinua eta ugaritasunaren fantasia”, nagusitzen dena eta imaginario soziala harrapatzen duena:

“Ikusi nuen eskola nik baino lehen, 12 urterekin, utzi zuen neska bat Italiara joan zela. Eta familia hobeto zegoela zen jasotzen genuen albistea. Nik harekin telefonoz hitz egiten nuen eta guztia oso eder aurkezten zidan. European, aireportura iritsi bezain pronto, ikusten zaituen lehen zuriak dirua oparitzen dizula esaten zidan. Lan asko dagoela esaten zidan, eta zaborretan gauza ugari daudela. Landan lan eginez gero, hilean 3.000 euro irabazten direla esaten zidan. Amona bat zaintzen baduzu, 4.000, eta haurrak zaintzen badituzu, 3.500. Baina guztia gezurra zen. Ez zidan egia esaten, ez zidan esaten prostituzioan lan egitera etortzen zirela. Horrek alde egitera bultzatu ninduen” (Sara).

Sarak argi zeukan ez zuela bidaia lehorretik egiteko arriskua hartuko, itsasoan jende asko hiltzen delako. Bazekien badaudela jendea Europara eramaten jarduten duten pertsonak eta amari eskatu zion hori egiteko prest zegoen norbait bilatzeko, baliabide ekonomiko handirik ez izan arren. Nabarmendu beharrena da Edo estatuan emakumeak eta neskatok Europara sareen bidez bidaltzea sozialki migrazio-estrategiatzat eta gizarte-garapentzat hartzen dituztela, eta 90eko hamarkadako urteetatik hona ekonomia dinamizatzen duen aberastasun-iturri bat dela.

“Eta orduan, 17 urterekin, gurasoei esan nien Europara eramango ninduen norbait bilatzeko. Ez nintzen arriskatuko Marokotik joaten, hori garbi neukan; Marokon jendea hil egiten da itsasoan, seguru, hori zorte-kontua da. Gurutzatzeko aukera izango banu, agian hil egingo nintzateke. Nik hegazkinez bidaiatu nahi nuen, hori garbi neukan. Amak esan zidan hori oso zaila dela; norbaitek ni Europara eramateko, abala eduki behar nuela, edo abala emango zidan norbait. ‘Eta nork emango digu abala?’, galdetu zidan. Ez daukagu etxerik, ez daukagu ezer abal moduan emateko. Nik esan nion ez zuela axola. Bilatu zezala ni Europara eramango ninduen norbait, eta gero bilatuko genuela modua. Nire herrialdean badago eta bidea dakien jendea; nik Bilbora joan nahi eta zuk orientatuko baninduzu bezala, nik zuri ordaindu, nik Bilbo ez dut ezagutzen, baina zuk bai, orientatu egiten nauzu, pertsona talde batekin utzi eta nik bizimodua aterako dut. Aitak lankide bat aurkitu zuen, dendako bizilaguna, eta egun batean harekin geratu ginen. Baina, ez dakit zergatik, ez nintzen hartaz fidatu une hartan eta itxarrotea erabaki nuen. Une hartan, pertsona hari ezetz erantzun nion eta hilabete batzuk geroago, amari artean interesatuta negoziela eta berriro bilatu zezala eskatu nion” (Sara).

Ikusten den moduan, emakumeak eta neskatok eramaten jarduten duten pertsona batzuk familiaren hurbilekoak dira. Sararen kasuan, horrez gain, nabarmendu behar da erabakitze ahalmena izan zuela eta lehen une batean horretarako eskaini zen pertsonarekin bidaia ez egitea erabaki zuela.

Emakumeak eta neskatok hainbat modutan bereganatzen dituzte. Modu bat familiei alabari helmugari buruz gezurra esatea da; hori da, adibidez, Sararen kasua. Salerosleek etorkizuneko negozio bat proposatzen dute European; adibidez, ile-apaindegietan, ostalaritzan, etxeak garbitzen edo haurrak zaintzen lan egitea. Kasu horietan, emakumeak Europara iristen direnean, beren helmuga sexu-esplotazioa dela esaten diete:

“Valentziara iristean, errealitatea hasi zen. Gizonak hitz egiteko dei egin eta hau esan zidan: ‘Afrikan entzun duzun guztia gezurra da. Hemen ez duzu ez lantegi batean ez landan lan egingo. Kanean egingo duzu lan, beste neskek bezala’ (Sara).

Women’s Link (2009, 2014) izenekoak adierazitako moduan, salerosketa biktimaren familiak berak onartzen du batzuetan, sakrifizio gisa ulertuta, familiaren onerako, eta aldi berean, komunitatearen onerako ordaindu beharreko prezio bat balitz bezala. Alaba bat atzerrira bidaltzeak familiari estatus handiagoa ematen dio komunitatean.

Kontuan hartu behar da Nigeriako edo estatuko eremuan, kultura tradizionalan, familiak garrantzi handiko pisua duela, eta seme-alabari gainera agintean familiaren beharrak asetzea dela funtsezkoa, eta norberaren proiektuen eta beharren gainetik dagoela. Akordioa bermatzeko eta kontratua ezartzeko budua erritu bat egitea ere berezkoa dute. Erritu horren bidez, emakumeek salerosketa-sareko kideak ez dituztela salatuko zin egiten dute, bai eta bideko gastu guztiak eta zorra ordainduko dutela ere, helmuga diren herrialdeetan handitu egiten dena (batzuetan, bikoiztu arte), alokairu, janari, arropa eta abarren gastuak trafikatzailerekin ezartzen dituztelako. Emakumeen kontrola muturrekoa da: kanean prostituzioan pasatu behar dituzten orduak, janariaren kontrola, zer arropa jantzi, noiz joan medikuarenera, etab. Ez diete uzten sarearen kontrolpean ez dagoen mugimendurik egiten. Gainera, buduaren bidez egindako akordioa betetzen ez badute, familiak Nigerian ondorioak jasango dituela ohartarazten diete. Horrela, emakumeak mehatxupean egoten dira hurbileko senideei min egiteko aukera dela eta. Budua errespetu handia sortzen duen erritua da, eta gehienek bete egiten dute, eta horrela, emakumeen erabateko kontrolerako mekanismo bat bihurtzen da. ■

# Erresistentzien kartografiak

**MAPA LURRALDEAREN** eraikuntza sinbolikok bat da, espazioaren eta lurraldean eta lurraldearekiko dituen erlazioak azaltzeko balio duena. Mapek, lurraldeak eta mugak kartografiatzeko aukera emateaz gain, gizarte-praktika garrantzitsuak kartografiatzeko aukera ere ematen dute. Gure protagonistek jatorrizko herrialdeetatik Europara egindako ibilbidea luzea eta gogorra da. Batzuetan, bidaiak hiru urte iraun dezake; Clararen kasuan, esaterako. Igarobidea arriskuz, indarkeria-egoeraz eta oztopoz beteta dago, eta areagotu egiten dira emakumeen kasuan. Jeannek dioen moduan, “bidaia guztiak arriskutsuak dira, eta emakumea bazara, are gehiago”. Dena den, arrisku eta zoritxar horien aurrean, emakumeek bizirik irauteko eta autodefentsarako estrategiak sortzen dituzte.

Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetatik abiatutako emakumeen migrazioa adieraztean, ematen den bertsioa ez da osoa izaten, eta bidaiatzen duten emakumeak jatorrizko herrialdeetako beraietako gaizkileek engainatutako eta esplotatutako biktima gisa erakusten dituzte batik bat. Biktimizazio horrek eragin bikoitza du. Alde batetik, emigrazioarekin aberasten diren erakunde kriminalen haztegia mugak jatorrizko herrialdeetan jartzeko politiken<sup>2</sup> eta Europako migrazio-legedi errepresiboen ondorio dela ezkututzen du. Eta bestetik, Europako herrialdeek pertsona migratzaileen herrialdeetako gatazketan, gerretan eta baliabide naturalen harrapaketan duten arduraz ez hitz egitea errazten du, *beldurraren politikak* zabaltzeko, komunikabideetan pertsona errefuxiatuen eta migratzaileen “oldea” edo “inbasioa” gizarte-diskurtsoak erabiliz, adibidez.

Horregatik, erresistentzien kartografia hauen helburua Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetatik etorritako emakumeen biktimaren irudi hegemoniko hori baztertzea eta bidean garatzen dituzten erresistentzietan eta estrategietan sakontzea da, bai eta jatorrizko herrialdeetatik bizkar-zorroetan ekartzen dituzten baliabide pertsonaletan eta sozialetan ere.

Foucaulten ikuspegi teorikoaren arabera, erresistentzia boterearen erabilerarekiko banaezina da beti. Foucaulten iritziz (1976:116), “boterea dagoen lekuan erresistentzia dago, eta ez da inoiz egoten boterearen kanpotik”. Horrek esan nahi du botereak eta erresistentzia “leku” bera partekatzen dutela. Erresistentzia ez da ez erreaktiboa ez negatiboa, sortze- eta transformatze-prozesu iraunkor bat da. Erresistentzia-puntuak leku guztietan agertzen dira boterearen sarearen baitan, forma askotan eta forma heterogenoetan, erresistentzia hori biderkatzen eta artikulatzen denean soilik izan arren eraginkorra egoerak aldatzeko.

Beraz, erresistentzien kartografien bidez aztertu nahi dugu nola jarduten duen botereak lekuan-lekuan emakumeek aurrez, igarobidean eta helmugan sortzen dituzten subertsio-aukerekiko. ■



# Afrika

# Legenda




Irudi giltzarri ahalduntzaileak haurtzaroan eta nerabezaroan



Lana eta denbora betetzea



Miaketaren eta sormenaren ekonomia



Erljio-errituak



Kapital kulturala



Laguntza Piskologikoa



Erresilientzia



Beloa: jantzi babesle bat



Gizarte-erakundeen lotura eta laguntza bizitakoa prozesatzeko eta berriro adierazteko da



Arriskua




Dirua



Bideko mutil-laguna edo senarra




Biktima izatetik eragile izatera: parte-hartze soziala



Mapak




Bizitza-proiektuak




SOS



Patera



Clara (Mapa Orokorra)



**Clara (xehetasunak)**





Bilbo



Madril

Valentzia



Atenas




Benin

Lagos



Sara



Jeanne

# Erresistentzien analisi psikosoziala

## 4.1.- Jatorrian

Emakumeak ez dira esku hutsik ateratzen jatorrizko herrialdeetatik. Haurtzaroan eta familien bidez lortutako gaitasunak eta baliabideak eramaten dituzte, eta haiei esker, bizirik irauteko mekanismoak bilatzen dituzte bidaian zehar eta Europara iristean.



### Irudi giltzarri ahalduntzaileak haurtzaroan eta nerabezeroan

Narrazioen protagonistek irudi giltzarriak identifikatzen dituzte beren familietan, beren bizitzan zeregin garrantzitsua izan dutenak eta emakumeen sumisioa, pasibitatea eta gizonetikiko mendekotasuna bultzatzen duten genero-aginteak hausten dituztenak. Hain zurrinak ez diren hezkuntza-ereduak dira, autonomia-maila eta askatasun handiagoa ematen dutenak, emakumeak izan daitezen beren bizitza-proiektuaren eraikitzaileak. Sararen kasuan, nabarmentzekoa da amonak emandako hezkuntza ez zela aitarena bezain zurrina; eta Clararen kasuan, ekonomikoki inoren laguntzarik behar ez izatearen garrantzia azpimarratzen zion amak:

**“Herrian amonarekin hazi nintzenez, hiriburuan aitarekin hazi banintz baino aukera gehiago nuen mugitzeko. Ni baino neska helduagoekin ibiltzen nintzen beti. Nire adineko neska baino helduagoa nintzen” (Sara).**

**“Amak beti esaten zidan garrantzitsuena askatasuna dela. Aske izan zaitez nahi dut. Zuk lan egin eta dirua lortu, ez duzu behar gizon batek etxera dirua ekartzea jatekoa lortzeko, edo ez duzu beldurrez egon behar senarrari galdetzeko: ‘gona bat erosi nahi dut eta’.” (Clara).**

Gizartean normalean uste izaten da Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetatik etorritako emakumeen haurtzaroa eta familia gizarte-kapital pobrea duten familia desagituratuei dagozkiela. Baina, emakumeek haurtzaroko eta nerabezaroko oroimen zoriontsuak adierazten dituzte narrazioetan, eta esperientzia afektibo positiboak kontatzen dituzte:

**“Ni orain hemen banago ere, asko gozatu nuen nire herrialdeaz, izugarri. Oso ongi pasatzen nuen, ez zitzaidan ezer falta” (Clara).**

**“Haurtzaroko oroimen zoriontsuak ditut, aitak hezkuntza askea eman zigulako, presiorik gabea. Gertu geneukan, hark gu zaintzeko” (Jeanne).**

Jeanneren kasuan, berak aitortzen du aita salbuespen bat dela Afrikako hezkuntzaren baitan. Alde batetik, aitaren eta seme-alaben arteko autoritate nabarmeneko erlazio tradizionala hausten duelako, komunikazio eta gertutasun eskasekoa. Eta bestetik, familian aita erreferentea zelako zalantzak argitzeko eta gai polemikoei buruz hitz egiteko; sexualitateari buruz, esate baterako.

**“Aitak eman zigun hezkuntza eta Afrikako beste aita batzuen oso desberdinak dira. Aita asko egoten zen gurekin, bere seme-alabekin; hitz egiteko, gauzak egiteko, eztabaidatzeko. Oro har, Afrikan ez da asko hitz egiten aitarekin, errespetua eta distantzia handiak direlako. Baina nire aitarekin hitz egin zitekeen. Nire lagunak harrিতa geratzen ziren aitak haiekin hitz egiten zuenean. Edozein gairi buruz hitz egiten genuen, sexuari buruz ere bai. Aholkuak ematen zizkigun. Nire bizitzari buruzko galderaren bat banuen, aitak ematen zidan aholkua, ez amak. Gogoratzen naiz aitarekin ozen hitz egiteko aukera nuela. Aurka egiteko, berarekin bat ez etortzeko eta argudioak azaltzeko aukera eman digu” (Jeanne).**

Clararentzat ama da irudi giltzarria, ezarritako ezkontza baten ondoriozko sufrimenduzko esperientzia abiapuntu hartuta, ez zuelako nahi alabari gauza bera gertatzea eta estrategiak sortzen lagundu zion, aitak alaba ezkontzeko eginda zeuzkan planetatik askatzeko:

“Nire ama funtsezkoa izan zen senarrari janaria prestatzearen mende ez egoteko ideiarekin haz nedin; hau pentsatzen zuen: ‘ene! Ea zer ordutan etortzen den nire senarra! Janaria prestatu behar dut!’. Beti esaten zuen: ‘zu zara nire alaba bakarra; ikasi egin behar duzu, aske izan behar duzu. Nik asko sufritu dut, eta ez dut nahi zuk nik bezala sufritzerik’. Amak asko lagundu zidan, aitak ezarri nahi zizkidan ezkontzei iskin egiteko tranpak nola egin erakusten zidan. Eskutitzak idazten genizkion elkarri. Nola portatu behar nuen eta zer egin behar nuen aholkatzen zidan. Amak ez zuen aita aukeraterik izan eta ez zuen nahi niri gauza bera gertatzea” (Clara).

Alabek beren patu bera ez izateko borroka egiteaz gain, amek gizarte-arauak eta -balioak transmititzen dituzte; adibidez, justizia eta zintzotasuna:

“Amak ez du nahi nik berari dirurik ematea, edozein egunetan amonari lapurtu diezaiokedalako amari emateko. Amak ez zuen nahi nik lapurretan ikastea. Amari dirua ematen hasten banaiz eta une batean azokan saltzeagatik ateratakotik amari emateko ez badaukat, amonari kenduko nion, asko dauka eta” (Sara).



### Kapital kulturala

Azpimarratu beharreko bigarren baliabidea hezkuntza eta ikasketak izateko aukera dira. Parte-hartzaileek balio izugarria ematen diote famuliek ikasteko eman dieten aukerari. Kapital kultural hori funtsezkoa izan da, igarobidean eta Espainiako estatuan, bizirik irauteko estrategiak garatzeko:

“Aitak beti esaten zuen ez zeukala dirurik edo ondasun materialik guri uzteko, bere oinordekotza hezkuntza izango zela. Horregatik bidali ninduen gure hiritik kanpo zegoen barnetegi batera, aitak argi baitzuen hezkuntza serioa izan nezan nahi zuela. Unibertsitatera joan nadin nahi zuen” (Jeanne).

Clararen kasuan, unibertsitatera joatea familiako genero-arauak haustea zen, arau horien arabera emakumeek ikasketak utzi eta ezkontzeko obligazioa dutelako 10 urte betetzen dituztenetik aurrera. Beraz, estudiantzen jarraitzea izan zen aitak hitzartutako ezkontza-proposamenak atzeratzeko aukera eman zion estrategietako bat.

“Aitaren legea oso zorrotza zen. 10 urte bete arte, ikastera joaten ginen. Ondoren, 10 urterekin, mutila bazinen ikasten jarraitzeko aukera zenuen edo ikastaroak egiteko aukera, ogibide batean jarduteko; adibidez, mekanikan. Baina, neska bazinen, 10 urte bete ondoren, hilekoa etorri ondoren, ezkondu egin behar zenuen. Baina, ni ikasle ona nintzen, unibertsitatera iritsi nintzen eta aitaren proposamenak saihestuz joan nintzen” (Clara).



### Amets egitea eta bizitza-proiektuak izatea

Aurrekoarekin oso lotuta, parte-hartzaileek zituzten itxaropenak eta bizitza-proiektuak elementu giltzarriak izan ziren beren herrialdeetatik irteteko erabakia hartzeko orduan. Clarari dagokionez, aitak inposatutako behartutako ezkontzaren mehatxuak emakume autonomo eta askea izateko itxaropenak zapuzteak bultzatu zuen herrialdetik alde egiteko erabakia hartzera:

“Une hartan aske izan nahi nuen. Mutil-laguna nuen, igboa zen eta beste hizkuntza bat hitz egiten zuen. Gustuko nuen, baina ez nuen harekin ezkondu nahi, ez ginelako kultura berekoak. Nik, adin horretan, ongi pasatu baino ez nuen nahi, “aske izan” nahi nuen. Nire ametsa karrera amaitzea zen, lan on bat izatea, neure etxea, neure autoa eta nire askatasuna izatea, nahi nuena egiteko” (Clara).

Sararentzat, aldiz, familian bizi zuen pobrezia-egoeratik irteteko, eta ikasteko eta profesionala izateko ametsa betetzeko aukera zen Europa:

“Egunez egun gero eta pobreagoak ginela eta amak asko sufritzen zuela ikusten nuen, eta lagundu egin nahi nion. Nire ametsa mediku izatea zen. Esan zidaten European gobernuak ordaindu egiten dutela ikasteagatik. Eta orduan, 17 urterekin, gurasoei esan nien Europara eramango ninduen norbait bilatzeko” (Sara).

## 4.2.- Bidaian zehar

Arestian esan dugun moduan, bidaia oso arriskutsua da, eta are gehiago emakumeentzat. Dena den, narrazioen protagonistek batik bat muga-eremuetan izaten diren erasoetatik eta indarkeriatik defendatzeko estrategiak garatu zituzten. Egunez egun irauteko aukera ematen dieten eguneroko bizitzako manio-brak eta abileziak dira.



### Mapak, orientaziorako gailu gisa

Bizitza galtzeko arriskuan zaudenean, ateratzeko erabakia berehalakoa da eta askotan ez dago ezer planifikatzeko astirik. Dena den, *in extremis* irteteko egoera horretan ere, emakumeek bidaiaren ibilbidea planifikatu zuten, ibilbide arriskutsuenak saihestuz. Jeannek, adibidez, herrialde afrikarren eskolako mapak bildu zituen, Kamerunen iparraldeko eta Nigeriako gerra- eta gatazka-eremuetatik igaroko ez zen ibilbide bat diseinatzeko. Beraz, mapak orientaziorako eta babeserako gailu bihurtu ziren:

“Irteteko erabakia hartu nuenean, Marokora iristea zen helburua. Baina, nola iritsi? Nigeriatik pasatuz irten behar nuen. Eskolako ikasleek erabiltzen dituzten koaderno horietako bat erosi nuen, Afrikako mapak dakartzana. Ebaki eta soinean eramane nituen. Banekien ez nuela Nigeriako basamortura eta Kamerungo iparraldera joan behar, han Boko Haram nagusi zen eta. Ideia Nigeria-Niger-Aljeria eta Maroko egitea zen. Nigerrera joateko Nigeriako iparraldera joan behar nuen, eta han Boko Haram zegoen; beraz, Nigeriako hegoaldetik joan nintzen Benineko mugaraino autobusez, eta Benin gurutzatu nuen. Han frantsesez hitz egiten dute” (Jeanne).



### “Bideko mutil-laguna edo senarra”

Bideko indarkeriei aurre egiteko, emakumeek abian jartzen dituzten funtsezko estrategietako bat gizon batekin elkartu eta harekin itun bat egitea izaten da. Sexu-erabilgarritasunaren eta etxeko lanak egitearen truke, “bidaiako mutil-lagunak edo senarrak” emakumea babesteko konpromisoa hartzen zuen, bide osoan edo zati batean.

**“Banuen lagun bat eta harekin ateratzen nintzen, lagundu ziezadan. Ez nuen harekin ibiltzea beste erremediorik, bidaiatzen jarraitzeko” (Jeanne).**

Batzuetan, Clarak kontaktzen duenez, itunean sartzen da “bideko mutil-lagunari” Europara arteko bidaia ordaintzea ere:

**“Mutilarekin akordio bat egin genuen. Nik bidaia ordainduko nion, eta, trukean, senar-emaztegaiak bagina bezala bidaiatuko genuen; bidean zaindu egingo ninduen, inork niri kalterik ez egiteko. Hirugarren aldiz zihoan Espainiara” (Clara).**

Clararen kasuan eta beste askotan, bideko *husband* edo senarra pertsonen trafiko-sareko kide bat zen eta *guideman* gisa jarduten zuen; hau da, Espainiako estatuan prostituzioan jarduteko bereganatzen eta engainatzen dituzten emakumeak eta nerabeak Nigeriatik Marokora eramaten dituen figura. Bidaia ugari egiten dituztenez, mugetan operatzen duten pertsonen trafikatzailen taldeek ezagutzen dituzte gizon horiek:

**“Mugan, (gizonek) galdetu zidaten ea nork eraman ninduen. Izena esan nien eta erantzun zidaten ezagutzen zutela. Bazekiten bi aldiz egon zela Espainian. “Guideman” bat zen, bidaiari laguntzen zaituen pertsona. Ezagutzen zutenez, ez zidaten minik egin” (Clara).**

Bi figura horiez gain, *connectionman* izenekoa ere badago. Pertsonak mugetan batetik bestera eramateaz arduratzen da, diru truke:

**“Modu bat bidaia-lagun batekin joatea da, guidemanarekin, eta beste bat, mugatik mugara arteko ibilbideak egiten dituzten connectionmanei ordainduz joatea” (Clara).**

**“Mugan, zeharkatzen laguntzen dizun pertsona egoten da. Bidaiako espezialista bat; hari ordaindu, eta pasatzen uzten dizu. Niger eta Aljeria arteko muga eta basamortua zeharkatzeko ordaintzen duzu” (Jeanne).**

Bakarrik bidaiatzea, figura horiek zutaz arduratu gabe, ia ezinezkoa da emakumeentzat. *Guideman* eta *connectionman* figurak pertsonak Afrikako herrialdeetatik Europara eramateagatik etekina ateratzen duten trafikatzailen sareen parte dira. Beraz, bidaia sekulako negozioa bihurtzen da, eta pertsonak subjektuak izateari utzita merkantzia eta trafikoko objektu bihurtzen dira. Batzuetan, diru gehiago irabazteko, pertsonak pilatuta joaten dira mugak zeharkatzen dituzten kamioietan, benetan sartzen diren pertsonak baino gehiago sartuta, baldintza penagarritan eta janaririk eta urik gabe. Jeannek mugak zeharkatzea zein gogorra den, eta haietan zenbat arrisku eta heriotza izaten diren kontaktzen du:

**“Oso gogorra da; beldurrez eta izugarritzko beroarekin bidaiatzen duzu. Zeharkatzen lagundu zidan gizona kartzelan dago, hurrengo taldean, basamortua zeharkatzen ari zirela, kamioian zihoazen 300 pertsona baino gehiago hil zirelako. Albisteetan eman zuten” (Jeanne).**



### Belo: jantzi babesle bat

Europar, emakume musulmanak biktimizatu egiten dituzte belo eramateagatik. Belo, jatorriz burua estaltzeko jantzia, marka hegemoniko bihurtu da, eta sistematikoki zalantzan jartzen du belo daraman emakumeak autonomiarik baduen edo ez hori erabakitzeko. Belo aukeratzeko askatasuna zalantzan jartze hori beren bizitzetako erabakitzeko eremu guztietara zabaltzen da, eta teorikoki babesteko den elementu batek autonomiarik gabeko emakumeek belo kendu egin behar dutenaren irudia ematen du (Romero Bachiller, 2007). Dena den, bidean, Jeannerentzat eta Clararentzat, beloak eta jantzi musulmanek beste esanahi bat hartu zuten; mugetako gizonen eta poliziaren erasoetatik eta bortxaketetatik babesteko jantzi bat bihurtu zen. Egoera horretan, belo objektu babesle bat da eta ukitu ezin daitezkeen emakume errespetagarri bihurtzen ditu:

**Bidaiari ekin aurretik, Ramadan garaia zenez eta zeharkatu beharreko zati osoa musulmana zenez, musulmanen arropa erosi nuen haiek bezala jantzeko, ni musulmana ez naizen arren. Ramadan garaia zenez, gizonek begiratu egiten ninduten eta nitaz aprobetxatzen ahalegintzen ziren ez banengoen musulmanak bezala jantzita. Horregatik, ura eroatera ateratzen banintzen, adibidez, arropa hura jantzen nuen” (Jeanne).**

Jeanneren kasuan, musulmanen arropa emakumeen artean gorputz ez-bortxagarriak (emakume musulmanak eta haurdun daudenak) eta gorputz bortxagarriak (gainerako guztiak) bereizteko marka bihurtu zen eremu arrisksuenetan, muga-eremuetan. *Musulmana izatearen itxurak egitea* erasoak eta bortxaketak ekiditeko estrategia bihurtu zen berarentzat:

**“Aljerian, poliziak emakume afrikarrak bortxatzen ari ziren. Guztia kentzen dizute, paperak eta dirua. Marokoko partean ere berdin, emakumeak etengabe ukitzen dituzte. Nik musulmanen arropa neraman soinean. Taldean, bazegoen Kongoko emakume bat ere, benetan haurdun zegoena. Maliko musulmanak ginela esan genien, laguna haurdun zegoela eta gu ez ukitzeko. Beldur handia pasatzen duzu, handik pasatzen ziren emakume gehienak bortxatu egiten zituztelako” (Jeanne).**

Era berean, Clararentzat, familia musulmanekoa zenez eta arabieraz hitz egiten zuenez, askotan erabili zuen baliabide hori mugetan eta haietatik hurbil trafikatzailen taldeek osatzen dituzten ghettoetan bera ez bortxatzeko, bai eta polizarekin berarekin negoziatzeko ere, atxilotzen zutenean:

**Arabieraz hitz egitean, ghettoan agintzen zuten gizonek janaria ematen zidaten; horrek salbatu egiten ninduen, nik beste hizkuntza bat hitz egiten nuelako (...).Tamanrasset hiri txikira iritsi ginenean, poliziek atzeman eta guztiak ziegan sartu gintuzten. Pasaporterik ez zutenak Malira bidali zituzten bueltan. Kamioian herrialde askotako pertsonak gindoazen: Kamerun, Kongo eta Ghanakoak. Ziegan geundenean, nik, musulmana izanik, “arabieraz” badakidanez, poliziarekin**

hitz egin nuen eskutitz bat idatz zezan, hilabeterako Aljeriako hiriburura turista gisa gindoazela esanez, berriro ere gu ez atzemateko (Clara).



### Erljio-errituak

Bidean, pasatzen genituen hirien inguruan (Oujda edo Nador, esate baterako), basoetan, kokalekuak osatzen dira, eta haietan ezkutitzen dira pertsonak, poliziak atzeman ez ditzan. Higiene- eta osasun-baldintzak negargarriak dira. Ia ez da urik egoten. Emakumeak arratsaldez ateratzen dira, eta hiriaren erdigunera joaten dira dirua eskatzera edo azoketan lurrean edo sobran geratutako frutaren eta barazkien bila. Gaixotasunak eta pilaketak oso ohikoak dira leku horietan, drogen eta alkoholaren kontsumoaz gain:

**“Han, Oujdan, etxe abandonatu batean geunden, finka moduko batean. Ia 1.000 pertsona edo gehiago bizi ginen; ghetto bat zen. Putzutik hartzen genuen ura. Finka Oujda hiritik pixka bat urrun zegoen. Han guideman asko zeuden, marihuana eta haxixa erre eta whiskia edaten zutenak, dirua zutelako” (Clara).**

Enrien artean taldeak osatzen dira. Borrokak, indarkeria eta lapurretak oso ohikoak direnez, liderrak egoten dira, janarien eta beste zerbitzu batzuen truke kokalekuetako jende pobreenaren diruaren zaintzaile bihurtzen direnak:

**“Normalean dirua gizon batek gordetzen zidan denda batean. Dirua asko ez zuen jendearen dirua gordetzeaz arduratzen zen. Ez genion ordaintzen, baina jateko behar genuen guztia hari erosten genion. Hori zen tratua” (Clara).**

Kokaleku horiek Espainiako estatutik arrebek edo neska-lagunek bidaltzen dieten dirua drogak eta alkohola kontsumitzeko erabiltzen duten *guidemanez* beteta daude. Sexu-esplotaziorako erabiltzen dituzten emakume horiek dirua bidaltzen diete aldian-aldian, gizonak bidaiatzeko aukera izan dezaten, eta haiek edaritan eta drogatan gastatzen dute:

**“Han jendeak asko erretzen zuen eta negozioa oso ongi zihoan. Emakume asko prostituzioan lan egitera etortzen dira Espainiara eta diru guztia Marokon egoten diren mutil-lagunei edo anaiei bidaltzen diete; eta haietako askok drogatan gastatzen dute. Adibidez, ezagutu nuen neska batek Espainian lan egiten zuen prostituzioan eta dirua bidaltzen zion Marokon zegoen mutil-lagunari; eta hark erretzen eta alkoholetan gastatzen zuen guztia, eta niri erosten zidan” (Clara).**

Horrela, kontrabandoa eta kokalekuko gizonak drogak eta alkohola saltzea ekonomia-iturri bihurtu zen Clararentzat; bizirik irauteko estrategia bat da, eta bidaia jarraitzeko eta etsaitasuneko mundu debalatu batean, gizonen mende dagoenean, bizirik jarraitzeko balio du, non emakumeen aurkako indarkeria areagotu egiten den eta emakumeen gorputzak gizonentzako sexu-gogobetetasunerako objektu hutsak diren:

**“Matxismoa izugarria da han. Gainera, emakumeok ez dugu ezer balio, oherako bakarrik” (Clara).**

Mundu maskulinizatu hartan autoritatea sortzeko Clarak baliatu zuen estrategia bat erlijio-errituak erabiltzea izan zen. Afrikako herrialde askotan, errituak ohiko praktikak dira gaur egun ere (Nigeriako budua, adibidez) eta islamarekin eta kristautasunarekin sinkretismoan bizi da. Clararen kasuan, min egin diotenen aurkako madarikazioa izan da bere mendekua publikoki jasandako eraso eta indarkeria indargabetzeko:

**“Niri, esate baterako, hiru gizonak izugarritzko jipoia eman zidaten eta ezin izan nuen jaiki bi egunez. Gizonak zirenez, inork ez zuen esan “utzi ezazue bakean”. Min izugarria eman zidan. Ez dituzte emakumeak errespetatzen eta zor zidaten dirua jasotzeko eskubidea neukan. Gainera, nik prestatutako janaria jaten zuten eta bakarrik nengoen; beraz, madarikazioa bota nien. Guztien aurrean biluztu nintzen areto handi batean. Guztien aurrean jo nindutenez, nik ere guztien aurrean bota nien madarikazioa. Esan nien: “nik zuei zerbait egin badizuet, herrialde honetatik ateratzean ez dut itsasoa zeharkatuko; baina, ez badizuet ezer egin eta zor zenidaten dirua eskatzea zuzena bada, zuetako bakar bat ere ez da bizirik aterako itsasotik” (Clara).**

Haien aurka fisikoki ezer egin ezin zuenez, erritu bat eginez jaiki zen, erasan zioten pertsonak madarikatu. Clararen biluztea, aukeratua eta publikoki egina, gizonen mende egotearen aurkako kontrabotere-ariketa bat da. Afrikako kulturaren erlijio-praktika horiek oraindik ere pisua handia dutenez, pertsonak sinesgarritasuna eta legitimitatea ematen diete madarikazioei, eta Clarari madarikazioa desagiteko eskatu zioten, bere boterea aitortuz. Horrela, gizonen indarkeria jasatetik sorgin izatera pasatu zen Clara, ekiteko gaitasuna duen emakumea, eta, beraz, arriskutsua:

**“Nik ez nuen beste baliabiderik, ezin nituen kolpatu. Emakume batek madarikazio bat egiten badu, madarikazio hori bete egiten da. Handik bi egunera, ghetto liderrak deitu zidan. Esan zidan bere herrialdean madarikazio bat botatzea txarra zela eta pertsonak hil egiten zirela. Hau esan zidan: ‘Zuk madarikazioa bota diguzenez, kendu egin behar diguzu’. Ardi bat erosi behar duzu eta bihotza gordinik jan behar duzu, madarikazioa kentzeko”. Mohamedekin, mutil arabiarrekin, hitz egin nuen, finka batera eraman ninduen, ardi bat erosi nuen 100 euroan eta eraman egin nuen. Beraiek hil zuten eta labana batekin prestatu zuten. Bihotza gordinik eman zidaten, jateko. Iparraldeko Sorgina deitzen zidaten, nire burua defendatzen nuelako” (Clara).**



### Erresilientzia, edo zailtasunak gainditzeko gaitasuna

Narrazioetan, Jeannek eta Clarak azpimarratzen dute, batik bat, muga-eremuak direla astakeria handienak ikusi dituzten lekuak. Jeannek nabarmentzen du, adibidez, Marokoren eta Aljeriaren arteko muga batere gizatasunik gabekoa dela bereziki, eta ordura arte imajinatu ere ezin zituen ankerkeriak ikustera iritsi zela:

**“Izugarria da. Bizitzan inoiz ikusi gabeko eta imajinatu gabeko gauzak ikusi nituen han. Norbaitek kontatu izan balit, ez nuen sinetsiko. Dardarka nengoen. Banekien ez zidatela ezer egingo, baina halako dardara nuen jangalea ere galdu bainuen. Jateko ere beldur nintzen” (Jeanne).**

Gizakiok zailtasunak gainditzeko dugun gaitasunari erresilientzia esaten zaio. Beraz, egonkortasuna galarazten duten gertakizunak, bizi-baldintza zailak, traumak eta gertakari larriak bizi arren etorkizunean proiektatzen jarraitzeko banaka edo taldean garatzen dugun gaitasuna da erresilientzia (Manciaux, Vanistendael, Lecomte eta Cyrulnik, 2001). Sararen kasuan, etorkizunean bere burua proiektatu zezakeen gaitasun horrek eta bizitzen ari zena aldi batekoa izatea pentsatzeak aurrera jarraitzeko eta ez etsitzeko aukera eman zion:

**“Une hartako zerbait zela, aldi batekoa zela pentsatzeak aurrera egiten laguntzen zidan. ‘Ez naiz hemen betiko geratuko’ (Sara).**

Esperientzia traumatiko bat bizitzeak pertsona baten bizitza, sinesmenak eta balio-sistema aldatzen ditu. Betiko markatzen zaituzten esperientziak dira. Jeanneren narrazioan ikus daitekeen moduan, bizipenen izugarrikeriek orbain fisikoak uzten dituzte, bizitako egoeren larritasuna betiko gogorarazten dutenak. Baina, aldi berean, orbain horiek erresistentziarako eta zailtasunak gainditzeko gaitasuna adierazten dute, eta berak dioen moduan, gaur egun *bizirik egotea*:

**“Afrikako gertakari horietan pentsatzen dudanean, min horretan pentsatzen dudanean, gogorra da niretzat fisikoki eta mentalki. Gogorra da; baina, bizirik nago, ezta?”. (Clara).**

### 4.3 Helmugan



#### **Biktima izatetik eragile izatera: parte-hartze soziala**

Bidaia ez da amaitzen Espainiako estatura iristean. Jeannek, Sarak eta Clarak diote Espainiako kostara iristean beste zailtasun batzuk sortzen direla. Hizkuntza, kultura ez ezagutzea eta herrialde desberdin bat, bakardadea eta informazio falta dira aipatzen dituzten oztopo batzuk. Sararentzat, informazio faltak eta hizkuntza ez jakiteak zaurgarritasun handiagoko egoera batean jartzen zaitu, eta horrek eraginak ditu maila emozionalean. Sarak larritasunez gogoratzen ditu une horiek:

**“Ikaragarria izan zen, ezagutzen ez duzun herrialde batean zaudelako, informazio faltan, hizkuntza jakin gabe (...). Nik badakit zer den ezertxo ere ez jakitea, informaziorik ez edukitzea. Horrelako egoera bat bizi arte ezin da ulertu hori” (Sara).**

Horregatik, bizitako sufrimendua arintzeko, Hiesaren aurkako Bizkaiko Herritar Batzordeak ematen dituen tailerretan parte hartzea eta osasun-eragile bihurtzea erabaki zuen, berak bizi izandako egoeretan dauden emakume afrikarrei informazioa eta aholkuak emateko:

**“Hiesaren aurkako Batzordeko tailerrak ematera animatu nintzen, iritsi nintzenean ez nuelako informaziorik eta asko sufritu nuelako. Niretzat, informaziorik ez edukitzea infernua da. Nik horrekin asko sufritu nuen. Eta badakit emakume pila bat dagoela oso gaizki pasatzen, isilean. Horregatik, kalera atera nintzen Hiesaren aurkako Batzordearekin, informazioa ematera eta orientatzera” (Sara).**

Hartara, gizarte-erakundeekiko lotura eta lana estrategia bihurtzen dira; alde batetik, norbera ahalduntzeko estrategia, emakume horiei bizitako zaurgarritasun-esperientzia berriro adierazteko aukera ematen diena, eta, bestetik, parte-hartze sozialekoa, helmuga duten gizartean eragile aktibo gisa kokatzen dituen beste emakume batzuei aholkuak eta laguntza emateko.



#### **Gizarte-erakundeen lotura eta laguntza bizitakoa prozesatzeko eta berriro adierazteko da**

Desorientazioaz eta ezjakintasunaz gain, badaude helmugako gizartearekiko harremana eta lotura zailtzen duten beste faktore batzuk. Sarak, adibidez, Bilbon pasatutako lehen urte eta erdian, San Frantziskon bizi zen arren, ez zuen elkarerik ezagutu. Bere kasuan, oker baten ondorioz jarri zen harremanetan Askabide erakundearekin. Curriculumama eramateko asmoz, Sara bere ustez enplegu-bulegoa zen eraikineran joan zen, baina Ertzaintzaren eraikina zen hura; han, Ertzaintzak berak jakinarazi zion Askabidera bidaliko zutela:

**“Lan bila nenbilen egun batean Zabalburutik pasatu nintzen, Ertzaintzaren eraikinetik; baina ez nekien polizia zenik. Valentzian Ertzaintzaren Zabalburuko eraikinaren itxura zuten bulegoak zeuden. Gainera, jendea etengabe sartzen eta ateratzen ari zela ikusi nuen. Urtebetez baino gehiagoz, San Frantziskon eta Autonomian soilik ibili nintzen. Ez nuen beste lekurik ezagutzen. Orduan, Ertzaintzaren eraikinean sartu nintzen nire curriculumama uztera. Polizia jator bat suertatu zitzaidan eta hau esan zidan: ‘denbora gutxi daramazu hemen, ezta? Hau Ertzaintza da’. ‘Zer da Ertzaintza?’, galdetu nion. ‘Euskadiko polizia’, erantzun zidan. Polizia ingelesez ari zitzaidan nik artean gaztelaniaz ez nuelako ongi hitz egiten. Hau esan zidan: ‘Lana bilatzen lagunduko dizun elkarte batera bideratuko zaitut’” (Sara).**

Sarak aipatzen duen faktore garrantzitsu bat, gizarte-erakundeetara hurbildu eta haietan sartzeko orduan eragina duena, haiekiko mesfidantza da. Zenbait komunitate afrikarretan eta batik bat nigeriarrean, sarritan uste da elkarteak poliziaren kolaboratzaileak direla, eta beraz, mehatxu bat direla:

**“Hasieratik elkarteetara ezin dugula hurbildu esanez beldurtzen gaituzte. Orduan, nik ez nuen galderarik egiten. Hain zuzen, urtebete eta sei hilabete neramatzan Bilbon eta ez nuen ia baliabide bakar bat ere ezagutzen. Esaten ziguten elkarteetako eta erakundeetako jendea ez dela fidatzekoa, poliziarekin zerikusia duela” (Sara).**

Bestetik, leku berri batera iristean izaten den inpaktuak lehen laguntza hori ongi jasoa eta oso bereziki gogoratua izatea eragiten du. Clarak, haren narrazioan, hirira iritsi berritan nola eta nork lagundu zion kontatzen du:

**“Burgosera iritsi nintzenean, zain neukan mutilak Caritasen atean utzi ninduen. Gogoratzen naiz goizeko seietan iritsi nintzela eta ez zegoela zabalik. Zortzietan edo bederatzietan zabaldu zuten. Ordu horretan Caritaseko abokatua sartu zen, eta ez naiz harekin ahaztuko. Nire historia azaldu nion eta esan zidan ez arduratzeko, harrera-etxe batera bidaliko ninduela” (Clara).**

Harreraz gain, emakumeek laguntza psikologikoa aintzat hartzen dute, gertakizun traumatikoenak eta gogorrenak prozesatzeko funtsezko baliabidea delako. Jeannerentzat, psikologoek laguntzari esker bizitako izugarrikeriak hitzen bidez adierazteko aukera izan du, bere herrialdeetik atera zenetik izandako historia norbaiti kontatzeko aukera, eta hartara, isiltasuna hausteko:

**“Egun hartan gertatu zitzaidanaz orain hasi naiz hitz egiten, baina denbora luzez ezin izan dut hitz bakar bat ere esan. Psikologoek laguntzari esker, orain hitz egiteko gai naiz” (Jeanne).**



### Miaketaren eta sormenaren ekonomia

Parte-hartzaileek, ekonomikoki irauteko, Espainiako estatuan daramatzaten urteetan izan dituzten denetariko enpleguei buruz hitz egin dute; gehienak lan feminizatuak eta zainketaekin eta etxeko lanekin lotutakoak dira, eta emakume migratzaileek betetzen dituzte gehienetan, lan-baldintza eta soldata kaskarrekin.

**“Beste lan bat atera zitzaidan, kale-garbitzaile. Bi urte pasatu nituen kaleak garbitzen. Biltegi batean, oinetakoek fabrika batean, kaxan oinetakoak ordenatzen, garbitzen. Baina, une jakin batean, krisia dela-eta ez dago lanik” (Sara).**

Sarak kontatzen duen moduan, emakumeek diru-iturri berriak bilatzen dituzte lana biderkatuz, miaketa-ekonomiak praktikan jarritz; Amaia Pérez Orozcok (2014) Latinoamerikako ekonomia informaletatik berreskuratu zuen. 4|par Globalaren krisiaren testuinguruan, miaketaren ekonomia lan-harremanen esparrurik gabeko lan-modalitate bihurtuko litzateke, eta beraz, ez luke ez segurtasunik eta eskubide sozialak eta ekonomikoak asetzeko bermerik emango. Sararen adibidea hartuta, egunez sukaldean laguntzen jarduten zuen eta gauetan zaindari izaten zen egoitza batean, pertsona heldu guztiak bere zaintza-pean zituela:

**“Sukaldeko laguntzaile gisa kontratatu ninduten, baina ondoren gaueko txandara pasatu ninduten gaztelaniaz ongi jakin gabe eta erizaintzako titulurik izan gabe. Hori ez zen legezkoa, bakarrik uzten nindutelako egoitza. Hala ere, egunez 700 euro kobratzen genuen, 4 laguneko talde bat egonda, eta gauez, berriz, 1.000 euro ordaintzen zizuten zu bakarrik egonda. Gaueko 10etatik goizeko 6ak arte zaintzen egotea zen” (Sara).**

Miaketaren ekonomia horrekin batera sormena eta abilezia berriak ikasteko alternatibak agertzen dira. Clarak, gaztelania ongi menperatzen ez zuenez, kontatzen du etxeko lanetan jarduten zuen etxean, telebistaren bidez ikasi zuela jatekoa prestatzen, Karlos Argiñano sukaldariak nola egiten zuen ikusiz:

**“Etxe hartan ikasi nuen sukaldean, telebistari begira. Ikastaro bat egin nuen arren, gehiago ikasi nuen Karlos Argiñano ikusiz. Karlosek edozer prestatzen zuela ere, hau esaten nuen nik: “Goazen supermerkatu! Eta asko gustatzen zitzaie. Andrearen senarra eta senarraren arrea zaintzen nituen. Supermerkatu joaten ginen eta nik esaten nion zer erosi behar genuen. Eta esaten zidan: “oso garestia, ezta?”. Nik esaten nion luxuzko janaria zela. Horrela ikasi nuen janariak prestatzen eta seme-alabei asko gustatzen zitzaie” (Clara).**

Anekdotak hutsak izan beharrean emakume horiek ikasteko, baldintza berrietara egokitzeko eta eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten zailtasunei aurre egiteko dituzten gaitasunak erakusten dituzte gertakizun horiek.



### Lana eta denbora betetzea, ardurak uxatzeko

Ahaztea eta egoera gainditzea ez da hain erraza, batik bat beren herrialdeetatik presaka atera eta familia eta seme-alabak bertan utzi behar izan dituzten emakumeentzat. Horregatik, Jeanneren ustez oso garrantzitsua da gizarte-erakundeek ikasteko eta ikastaroak egiteko ematen duten aukera, ikasteaz gain burua okupatuta izateko, pentsamendu txarrak uxatzeko eta gauez atseden hartzeko balio duelako.

**“Egunero pentsatzen dut indartsua izan eta aurrera joan behar dudala. Ez dut ezer egin gabe bizi nahi. Ez dut bakarrik geratu nahi nire pentsamenduekin, nahiago dut gauzak egin, elkarteren batera hurbildu eta ekintzak egitea. On egiten didate, eta etxera iristen naizenean nekatuta egoten naizenez, lo egiten dut zuzenean” (Jeanne).**

Era berean, gizarte-espazioetan (elizan, adibidez) adiskide afrikarrekin parte hartzea sozializatzeko eta bakarrik ez geratzeko estrategia bat da, arduetan eta arazoetan ez hausnartzeko modu bat:

**“Elizara ere asko joaten naiz, Afrikako herrikide ugari egoten da han. Denbora asko pasatzen dut jendearekin hizketan eta gauzak egiten. Gauzak egiteko eta jendearekin egoteko modu bat da” (Jeanne).**

Lanerako eta bere kabuz baliatzeko gogo eta grina hori Clararen, Jeanneren eta Sararen narrazioetan agertzen da. Narrazioak osatzeko prozesu guztian, lana edo lana bilatzea etengabeko lehentasuna izan da hirurentzat:

**“Lan egin nahi dut; niretzat ez da eroso DSBEs kobratzea. Berdin zait non, prest nago” (Jeanne).**

**“Gustura egingo nuke lan edozertan: pertsonak zaintzen, garbiketan, edozertan. Orain ezin dut esan zer dudan gustuko. Edozer gauzatan egingo nuke lan” (Clara).**

Hain zuzen ere, narrazioak amaitzen ari ginenean, Clara Madrilen zegoen. Lana aurkitu zuen han eta, bi aldiz pentsatu gabe, joan egin zen. Sarak gaur egun lan egiten du tarteka, deitzen diotenean, eta goizetan HHEn6 gaztelania ikasten jarduten du. Jeannek ere bai, eta eskola-graduatu, goizez, eta informatika-ikastaroak, arratsalde, uztartzen ditu. Ausartak, bizirik iraun dutenak eta biziak izateaz gain, langile gisa definitzen dira. ■



# Amaierako gogoeta batzuk

## NARRAZIOAK eta erresistentzien analisia abiapuntu hartuta, amaierako gogoeta batzuk laburbilduko ditugu.

Lehenik eta behin, emakume horiei ez zaie mundua zabaltzen helmuga duten herrialdera iristean, mundua irekita dutelako iristen dira hona baizik. Hau da, emakume horiek aurrez dituzten baliabideek eta esperientziek bizirik irauteko mekanismoak eraikitzeak aukera ematen diete. Beraz, emakume horiek egoera arriskuak saihestea lortzen dute, bai eta egoera bakoitzean estrategia egokienak garatzea ere.

Bigarrenik, narrazioetan indarkeria agertzen da jatorrian zein igarobidean, eta Espainiako estatura iritsi eta bertan kokatzen direnean ere bai. Emakumeek egoerei aurre egiteko erabilitako estrategiak ardatz izan badira ere, ondoren datozen narrazio osoak emakumeen bizitzetan izaten diren askotariko indarkerien erakusgarriak dira. Indarkeria horiek sistema kapitalista, patriarkal eta neokolonialean dute beren kareorea, eta emakumeek gorputzak gauza bihurtzea behar du, menperatzeko eta gutxi batzuen eskuetan dagoen munduaren gaur egungo jabetzaren onerako ustiatzeko. Beraz, indarkeriaren *continuum* bat da, helmuga den herrialdera iristean amaitzen ez dena; baizik, han, beste indarkeria batzuekin nahasten da (bikoteko indarkeriarekin edo indarkeria instituzional eta arrazistarekin, adibidez).

Azkenik, narrazioek loturaren eta moldatzearen arteko etengabeko tentsioaz hitz egiten digute; hau da, menperatze-sistemei lotutako gorputzak garenez, sarritan hori errepikatzen dugu jakitun izan gabe, baina, aldi berean, gorputz erresistenteak gara, egoerei aurre egin eta haiek aldatzeko gaitasuna dugunak. ■

# Narrazioak

## 6.1.- Clara: aske izan nahi zuen emakumea

### ► Jatorrian

Nire izena Clara da, 32 urte ditut eta Nigeriako iparraldeko Sokoto probintziakoa naiz. Probintzia horretan, arroz, babarrun eta azukre asko egiten da, gehienak musulmanak dira eta jendeak elkarri laguntzen dio. Dirua duenak eman egiten dio ez duenari, beti dago laguntzen zaituen norbait.

Nigerren mugakidea denez, Nigerreko pertsona ugari Sokotora joaten dira bizitzera beren herrialdea oso pobrea delako. Pertsona horietako askok kalean bizitzen amaitzen dute eta Boko Haram talde terroristak beraganatu ditzake. Hasieran, kristauen eta musulmanen arteko gerra zela esaten zen, baina eliza musulmanetan ere lehergailuak jartzen hasi ziren ondoren.

Sokotoko probintzian gehienak musulmanak dira. Nigeriako hegoaldea, aldiz, kristauagoa da. Iparraldean xaria daukagu. Horrek esan nahi du emakume guztiok behartuta gaudela beloa jantzita ibiltzera eta agintzen digutenarekin ezkontzera. Ezin dugu motoan ibili edo gona jantzi. 10 urteko haurrak ezkontzera behartuta gaude. Nire ahizpa, esaterako, hamabi urterekin ezkondu zen eta orain bereizita dago zorionez. Hamahiru seme-alaba zituen bere ardurapean, guztiak bereak ez izan arren. Hamabi urterekin ez zaude ezkontzeko behar bezala prestatuta. Nire kasuan, aitaren eta anaia zaharrenaren begikoa nintzen, ikasle ona nintzelako eta nota onak ateratzen nituelako.

Lagosen jaio nintzen, hiriburuan. Aita militarra zen, kargu altua zuen armadan, eta lurrak eta abereak, eta diru lortzen zuen haien bidez. Lau emakume zituen, eta zortzi ohekide. Militarra zenez, etxeak zituen Lagosen eta iparraldean, Sokoton; han, lurrak eta berarentzat lan egiten zuten pertsonak zituen, nire anaia alfer hutsak zirelako eta ez zutelako lurra landu nahi. Sokotoko etxea oso handia zen. Hogeita lau gela zituen, egongelak eta sukalde izugarri handia. Lauk egiten genuen lo gela batean. Eta gainera, lau gelako apartamentu bat geneukan Sokoto hirian bertan.

Aitaren legea oso zorrotza zen. 10 urte bete arte, ikastera joaten ginen. Ondoren, 10 urterekin, mutila bazinen ikasten jarraitzeko aukera zenuen edo ikastaroak egiteko aukera, ogibide batean jarduteko; adibidez, mekanikan. Baina, neska bazinen, 10 urte bete ondoren, hilekoa etorri ondoren, ezkondu egin behar zenuen.

Hiru urte bete arte aitarekin bizi izan nintzen hiriburuan, Lagosen. Ondoren, anaia zaharrenarengana joan nintzen Sokotora. Harekin bizi nintzen alde egin zuen arte, eta orduan auzokide batek hartu gintuen bere etxean nire ahizpa bat eta biok. Bigarren hezkuntzako irakaslea nuen bera. Ikasle ona nintenez, bere etxean hartu ninduen eta harekin bizi izan nintzen zenbait urtez, unibertsitatean hasi arte. Hark hemezortzi seme-alaba zituen. Aita bezalakoa zen niretzat.

Hiru urte nituenean, amak aita utzi zuen eta bere etxera itzuli zen, Oujda probintziara. Urte luzez ez nuen ongi ulertu zergatik egin zituen mailetak eta bere lurraldera itzuli zen. Itxuraz ez zuen inolako arazorik aitarekin eta nik ez nion inoiz galdetu. Baina hazten joan nintzen heinean, ulertzen hasi nintzen. Aita oso gizon bortitza zen, izaera gogorrekkoa, eta ezinezkoa zen egoera horretan bizitzea. Lau emazte eta zortzi ohekide zituen; nire ama bigarren emaztea zen. Amaren baldintzak ohekideenak baino askoz hobekak baziren ere, ezin izan zuen jasan. Hala ere, ez zen aitaz bereizi eta zoriontsu bizi izan zen bakarrik.

Unibertsitatean azken urtean nabilela, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasten, egun batean aita Sokotora etorri, eta esan zidan jada ezkontzeko prest nengoela. Gizon bat ekarri zidan, probintziako senataria, berrogeita hamabi urteko gizon bat. Nik hogei urte nituen. Esan nion, "aita, baina ez dut eza-gutzen eta". Eta berak esan zidan politikari boteretsua zela, hiru emakume zituela, baina bakar batek ere ez zuela ikasketarik. Esan zidan: "haren emaztea izateko aurkeztu behar duzu, ikasketak dituzulako, eta bera politikaria da eta asko lagunduko dizu nahi duzun lana aurkitzen". "Hitz egiten duenean, ez duzu erantzun behar, beti baietz esan behar diozu guztiari". Eta nik erantzun nion: "ongi da; pentsatuko dut". Baina erantzun zidan ez nuela ezer pentsatu behar eta finkatutako egunean agertu behar nuela.

Erritu bat da. Aurkezpena eta afari ofiziala egoten da; lehenik familiarekin, eta ondoren, gizona aurkezten dizute. Egun hartan eztabaidan jardun nuen aitarekin. Gizon zaharra eta itsusia zela, eta horrez gain, hiru emazte zituela esan nion. "Ez naiz berarekin ezkonduko", esan nion. Eta aita sutan jarri zen. Ni konbentzitzen saiatu zen, esanez azkena izango nintzela, gustukoena, eta ez zitzaidala ezer faltako. Eta erantzun nion ni jadanik lanean ari nintzela eta ez nuela gizon hura behar. Ez zen aitari aurre egiten nion lehen aldia. Ordura arte nire ahizpen bidez iskin egin ahal izan nion. Negozio on bat zuen pertsona bat ere etorri zen ezkontzeko eskatzera; oso pertsona garrantzitsua omen zen. Nire ahizpak gustuko zuela esanda iskin egin nion. Horrek salbatu ninduen. Baina oraingoan zailagoa zen, ez neukan ihesbiderik.

Unibertsitatea amaitzen ari nintzenez, "herrialdea zerbitzatea" egokitzen zitzaidan; urtebete izaten da. Hegoaldera bidali ninduten; han igboa hitz egiten dute. Nik hausa eta yoruba hitz egiten nituen. Ama yoruba zen eta aita hausa. Zerbitzua egiten ari nintzela, anaiaren ezagun batek esan zidan Espainiatik deportatu berri zuten mutil bat ziegan zeukatela eta ea baneukan anaiaren arroparik harentzako. Lehen, Nigeriara bueltatzen zintzuztetenean, isuna ordaindu behar izaten zen ateratzeko. Nik arropa eraman nion, eta hala ezagutu nuen. Europari buruz hitz egiten hasi zen. Esan zidan Marokotik Europa oso hurbil zegoela, eta nik, ikasketak nituen, ongi bizitzeko aukera izango nuela. Niri, aitarengandik oso behartuta sentitzen nintzenez, Europara joateko gogoia sartu zitzaidan. Eztabaida latzak izaten genituen eta ez nuen beste irtenbiderik aurkitu. Gizon harekin ezkondu edo Europara nindoan. 5000 euro behar zituela esan zidan mutil hark. Nik ez neukan hainbeste diru, baina lor nitzakeen 2500 euro, kontuan neukana eta amaren urrezko bi bitxi salduz aterako nuena batuta. Neukan diru guztia euroen truke aldatu nuen, eta, mutil horren bitartez, bi pasaporte egin zizkidaten, biok bidaiatu ahal genezan; izan ere, mutilaren garraioa nik ordaindu behar nuen, eta hark bidean lagunduko zidan.

Ongi hitz egiten zidan Europaz, Espainiaz eta Italiar. Han aske biziko nintzela. Egun haietan, negar asko egin nuen gizon harekin ezkondu behar nuela pentsatuta. Ez nekien nola ihes egin. "Gaizki portatzeko" alternatibian pentsatzen ari nintzen, hark niri dibortzioa eskatzeko. Batzuetan, emakumeak izaera txarra badu, dibortzioa eman diezaioke eta aske izan daiteke. Hau zen nire plan alternatiboa: "gizon horrekin ezkondu behar badut, ezkonduko naiz; baina gaiztotu egingo naiz, nire izaera hain txarra izango da, dibortzioa eskatuko baitit". Kultura musulmanean hiru aldiz dibortziatu behar duzu, aske izateko.

Une hartan aske izan nahi nuen. Mutil-laguna nuen, igboa zen eta beste hizkuntza bat hitz egiten zuen. Gustuko nuen, baina ez nuen harekin ezkondu nahi, ez ginelako kultura berekoak. Nik, adin horretan, ongi pasatu baino ez nuen nahi, "aske izan" nahi nuen. Nire ametsa karrera amaitzea zen, lan on bat izatea, neure etxea, neure autoa eta nire askatasuna izatea, nahi nuena egiteko. Ez senarraren mende egon, jatekoa egiten, pentsatzen "ailzer ordutan etorriko ote da senarra! Janaria prestatu behar dut!".

Uste dut nire ama funtsezkoa izan zela horretarako. Esaten zidan, "zu zara nire alaba bakarra; ikasi egin behar duzu, aske izan behar duzu. Nik asko sufritu dut, eta ez dut nahi zuk nik bezala sufritzerik. Aske izan zaitez nahi dut. Zuk lan egin eta dirua lortu, ez duzu behar gizon batek etxera dirua ekartzea jatekoa lortzeko, edo ez duzu beldurrez egon behar senarrari galdetzeko: 'gona bat erosi nahi dut eta'". Amak beti esaten zidan garrantzitsuena askatasuna dela. Amak asko lagundu zidan, aitak ezarri nahi zizkidan ezkontzei iskin egiteko tranpak nola egiten erakusten zidan. Eskutitzak idazten genizkion elkarri. Nola portatu behar nuen eta zer egin behar nuen aholkatzen zidan. Amak ez zuen aita aukeraterik izan eta ez zuen nahi niri gauza bera gertatzea.

Joatea erabaki nuenean, ez nion inori ezer esan, ez eta amari ere. Marokora iritsi nintzenean, hiru hilabete pasatu ziren familiari dei egin nion arte. Anaia zaharrenari deitu nion eta hark amarekin hitz egin zuen ondoren. Nik alde egin eta bi edo hiru urtera aita hil zen. Nigeriara itzuli nintzen 2011n. Ez nintzateke itzuliko aita bizirik balego. Orain kristaua naizenez, harrika hilko ninduen.

### ► Hiru urteko igarobidea

Nigeriatik atera nintzenean 2.450 euro nituen, Nigeriako txanpona eurotan aldatu eta urrezko bi bitxiak saldu. Mutilarekin akordio bat egin genuen. Nik bidaiari ordainduko nion, eta, trukean, senar-emaztegaiak bagina bezala bidaiatuko genuen; bidean zaindu egingo ninduen, inork niri kalterik ez egiteko. Hirugarren aldiz zihoan Espainiara.

Iparraldekoa naizenez eta hausa hitz egiten dudanez, Nigerren bezala, Nigerreko mugatik kamioiz atera ginen, Agadez hirira iristeko. Mugan ez zidaten ezer esan, hizkuntza bera hitz egiten genuelako. Gainerakoei eskatzen zieten, baina niri ez, eta mutila nirekin zetorrenez, pasatzen utzi zioten. Agadezera iristeko, Ténéré basamortua pasatu behar da. Kamioia matxurutzen bada, oinez joan behar duzu; oso gogorra da. Guk, joan ginenean, bizkar-zorroan sardinak latan, kakahueteak, azukrea eta "indomie" eraman genituen, hiru minutuan prestatzen den ekialdeko pasta bat.

Agadezera iritsi ginenean, 200 euro ordaindu nituen kamioi batean Aljeriara joateko. 52 pertsona gindoazen. Tamanrasset hiri txikira iritsi ginenean, poliziek atzeman eta guztiak ziegan sartu gintuzten. Pasaportetik ez zutenak Malira bidali zituzten bueltan. Kamioian herrialde askotako pertsonak gindoazen: Kamerun, Kongo eta Ghanakoak. Ziegan geundenean, nik, musulmana izanik, "arabieraz" badakidenez, poliziarekin hitz egin nuen eskutitz bat idatz zezan, hilabeterako Aljeriako hiriburura turista gisa gindoazela esanez, berriro ere gu ez atzemateko. Handik atera ginenean, autobus bat hartu genuen zuzenean Marokoko mugara, Oujda, joateko. Oujda iritsi ginenean, kontuz ibili behar genuen; muga hori oso arriskutsua da. Poliziak harrapatzen bazaitu, edo mafia afrikarrek, emakumea bazara bortxatu egiten zaituzte. Arratsaldeko seietan iritsi ginen mugara, eta mutilak esan zidan, "leku bat aurkitu behar dugu, bestela zu bortxatu egingo zaituzte, eta ni akabatu egingo naute".

Ezin nuen sinetsi esan zidana. Eztabaidan hasi ginen, ez zizkidalako bidaiako arrisku guztiak kontatu: sufritu egin behar zela, oinez ibili eta ziegan egon behar genuela. Konfiantza galdu nuen berarengan eta esaten zizkidan gauzetan. Baina, ez nuen jarraitu beste erremediorik. Basamortuan geundenez, gaua hitz egin gabe pasatu genuen, soinurik ez egiteko. Esaten zidan polizia marokarrek ni harrapatuz gero, bortxatu egingo ninduketela, eta mugan dauden afrikarrek ere diru guztia kendu eta bortxatu egiten zaituztela, eta gizonak akabatu egiten dituztela. Isil-isilik ibili behar genuen. Batzuetan oinetakoak erantzi behar izan genituen, zaratarik ez egiteko, zuhaitzik ez ukitu, mugitu ez zitezten. Horrela iritsi ginen Oujda hirira.

Arriskuak nonahi daude. Afrikarren taldeak egoten dira gauz zain, nor etorriko. Haiekin topo eginez gero, diru guztia kentzen dizute, arropa guztia, daukazun guztia. Eta gainera, European anai-arrebarik edo seniderik izanez gero, haren telefono-zenbakia hartu, eta dirua eskatzen diote. Estortsio hutsa da. Sokaz lotu eta jo egiten zaituzte, eta telefona belarrian jartzen dizute, anaiak zu garrasika entzuteko. Jende askok horrelakoak gertatzen direnik ez du sinesten, eta gero jakiten du bere anaia edo arreba, Europarantz zetorrela, hil egin dela.

Gogoan dut Oujda hirira goizeko lauretan iritsi ginela eta autobus bat hartu genuela Casablancara joateko; han etxe bat alokatu genuen, ehun euroan hileko. Gero, errenta igo egin zuten eta beste etxe batean egon ginen alokairuan hiru edo lau hilabetez. Ondoren, Marrakex baino beherago dagoen herri batera joan ginen; handik Las Palmas Kanaria Handikora joaten diren kaiukoak ateratzen dira. Bidaiak 800 -1.000 euro balio zuen, eta biontzat adina diru ez geneukanez, ni bakarrik joan nintzen. Motordun arrantza-ontzi txiki bat zen, sei edo zortzi lagun hartzeko modukoa. Gure txalupan 59 gindoazen, eta beste batean, berriz, 60. Haurrak, emakumeak eta haurdunak geunden. Irten bezain laster, ez dakit zer gertatu zen, baina olatu batek kaiuko irauli zuen. Nik ez dakit igerian, baina olatuak itsasertzerantz eraman ninduen. Jaiki nintzenean, nire alboan gorpuak zeuden, jendea hilda. Oso bizkor gertatu zen dena, segundo batean, begiak itxi-ireki batean. Gure txalupako 59etatik 22 atera ginen bizirik. Beste txalupako guztiak hil egin ziren. Hiru egunez shock-egoeran egon nintzen, ezin nuen hitz egin. Haurrak eta haurdun zeuden emakumeak hil egin ziren.

Polizia etorri zen, komisaldegira eraman gintuen eta atzera Oujda hirira bidali gintuzten, eta handik, Aljeria eta Maroko arteko mugara. Ni bakarrik nengoen eta nire kabuz egin behar nuen borroka.

Mugara iritsi nintzenean, mafia ikusi nuen. Guri ez ziguten ezer egingo, ez gentozelako Nigeriatik; jadanik ez ginen berriak. Hau galdetu zidaten: "Zenbat urte daramatzazu Marokon?". Ezin nien erantzun bi edo hiru hilabete. Bi edo hiru urte esan nien. Eta gero, nork ekarri ninduen galdetu zidaten. Izena esan nien eta erantzun zidaten ezagutzen zutela. Bazekiten bi aldiz egon zela Espainian. "Guideman" bat zen, bidaian laguntzen zaituen pertsona. Ni bakarrik nengoen eta leku arriskutsu hartan bizirik nola iraun asmatu behar nuen. Ezagutzen zutenez, mutilarengatik galdetu nien eta bazekiten nor zen:

-Bai, ezagutzen dut. Beste behin ere egon da!- esan zidan.

- Bai, berak ekarri ninduen- erantzun nion.

Une hartan, bakarrik nengoen eta mugan kontu handia izan behar da mafiekin. Dirua eskatzen dizute; adibidez, 500 euro. Eta ez badaukazu edo kanpotik bidaltzen ez badute, urez betetako ontzi batean sartzen zaituzte, hotz egiten badu. Hotzik egiten ez badu, oinak eta eskuak lotu, eta trapu zikin bat sartzen dizute ahoan. Izugarria da. Bizitzan inoiz ikusi gabeko eta imajinatu gabeko gauzak ikusi nituen han. Norbaitek kontatu izan balit, ez nuen sinetsiko. Dardarka nengoen. Banekien ez zidatela ezer egingo, baina halako dardara nuen jangalea ere galdu bainuen. Jateko ere beldur nintzen. Mafiarekin egon nintzen han astebetetz, Rabatera eramaten zaituen merkantzia-trena hartzeko lekura nola joan zekien jendea iritsi zain. Marokoko mugan zehar sei orduko ibilbidea egin behar da basamortuan, trena hartzen den lekura iritsi arte. Ez bazara azkar ibiltzen, atzean geratu eta galdu egiten zara, eta ez du inork zutaz galdetzen. Ez zaitu inork itxaroten. Gainera, kontuz ibili behar duzu mugan poliziak atzeman ez zaitzan. Eta hori gutxi balitz, mafiako pertsonak estortsioa egiten dizute, Europako senideei deitzen diete dirua eskatzeko, eta bestela hil egingo zaituztela esaten diete. Adibidez, 1.500 euro eskatzen dituzte.

Hor konturatzen zara droga ekartzea bezalako zerbait dela jendea ekartzea. Ez dago alderik. Gainera indarkeria izugarria dago; estortsioa egitea lortzen ez badute, jo egiten dituzte, gaizki tratatzen dituzte, gorputza markaz beteta uzten diete. Animaliak balira bezala jotzen dituzte, edo are okerrago. Badago mafiaren eskuetatik pasatu ondoren gorputzean arrastoak izaten dituzten pertsonak, edo esku bat erabili ezinik geratzen direnak. Ikusi ditut bi begi zituzten pertsonak, Marokoko mugatik irten ondoren begi bakarra zutenak. Emakumeekin egiten dutena izugarria da. Nigeriatik etorri zen neska bat Marokon geratu zen eta birjintasuna galdu zuen, ordaintzeko dirurik ez zuelako. Ekarki zaituenak ez badio dirua eman, gizon batekin oheratu behar duzu, edo bestela kalera joan eskatzera...

Askotan, European egoten diren senideek ordaintzen dute bidaia. Demagun ahizpa ekarki nahi dudala Nigeriatik. Lehenik, Nigerian pertsona bati ordaindu behar diot bidea erakutsi eta ahizpa zaindu dezan; *guidemana* da. Eta *guidemanari* ere garraioa ordaindu behar diot. Baina, ondoren, Marokoko mugan 1.500 eta 2.000 euro artean ordaindu behar duzu, muga zeharkatzeko. Ez baduzu ordaintzen, edozer gauza egin diezazukete. Mugan, *connentionmani* ordaindu behar diezu, muga zeharkatzeko arduradunei. Modu bat bidaia-lagun batekin joatea da, *guidemanarekin*, eta beste bat, mugatik mugara arteko ibilbidea egiten dituzten *connectionmani* ordainduz joatea.

Mafia horiek guztiak Europatik antolatzen dira. Adibidez, norbaitek esaten du hamar neska behar dituela European prostituzioan lan egiteko. *Guidemanari* ordaintzen diote eta Marokora eramaten ditu. *Guidemanak* dirua eskatzen du; adibidez, 10.000 euro eta hileko soldata bat neskak Europarako bidean laguntzen dituen bitartean. Neska Europara iristen denean, mafiak ordaindu egiten dio, eta berriro jatorrizko herrialdera itzultzen da, beste mafia batentzako beste neska bat ekartzera. Okerrera da mafiak *guidemanak* kontratatzen dituela, baina diru hori guztia neskak ordaindu behar duela ondoren. 40.000 eta 50.000 euro arteko zorraz ari gara hitz egiten. Uste dut lehen gehiago ordaintzen zutela. Engainatu egiten dituzte, ez dakite Espainiara iristean zor hori ordaindu behar dutenik. Beren herrialdeetan daudenean, oso erraza dela esaten diete, nahikoa dela autobus bat hartu eta zuzen joatea, eta gainera, Espainiara iristean lana aurkituko dutela ile-apaintzaile gisa, jostun gisa edo jatetxe bateko zerbitzari gisa. Pertsona heldua bazara, berrogei urtetik gorakoa, argiago esaten dizute. Baina hogeituroko neska gazteei ez diete egia esaten. Gero, Espainiara iristen direnean, eta adibidez asilo politikoa lortzen badute, zu ekartzeko bidaia ordaindu duen ugazabandarearen etxera joan, asiloaren papera kendu eta ez zaituzte erroldatzen. Hilero lekuz aldatzen zaituzte, gainera. Non dauden ere ez dute jakiten neskek: Madril, Malaga... Etengabe lekuz aldatzen zaituzte, zorra kitatzen duzun arte. Asko hamabost, hamasei edo hamazazpi urteko adingabeak dira, emakume oso argalak, mafiek emakume argalak eta politik nahi baitituzte, prostituzioan lan egin dezaten.

Merkantzia-trenera martxan igo behar duzu, lasterka egin behar duzu. Oujda hiritik gertu hartzen genuen, baina ez ginen hirian sartzen. Basamortuan egoten ginen zain. Handik hurbil dagoen herri txiki batean, trena ez da hain azkar pasatzen. Martxan igotzen ginen. Gogoratzen naiz mutil bat igotzen hasi eta erori egin zela. Ez dakit zer gertatu zitzaion. Horrelako gauzak gertatzen direnean, nor bere herrialdean bertan geratzea hobeto ez ote den galdetzen diozu zure buruari, zergatik pasatzen diren hainbeste gauza, hainbeste sufrimendu. Gogoratzen naiz guztia oso azkar pasatu zela. Lehen saiakera genuen. Trena ez zen geratu esan ziguten moduan, eta ez zuen abiadura txikitu. Segundo batean gertatu zen guztia. Igo nahi zuen eta erori egin zen, hanka bat atzera eta bestea aurrera begira zuela geratu zen. Odol pila bat ateratzen hasi zen. Ni zorabiatzen ari nintzen hainbeste odolekin. Berrogeita hamar pertsona geunden, eta hogeituroko nahian. Ni ez nintzen igotzen saiatu eta mutil harena gertatu zenez, ez nintzen igo. Ez genekien zer egin. Arropa kendu eta mutila lotu genuen. Baina odol asko zegoen. Ez dakit nola ez zen hil. Mugarik Gabeko Medikuek erakundeari dei egin genion eta etorri ziren. Baina polizia ere etorri zen eta beste herri batera joan ginen ihesean, trena hartzera.

Badakit mutila ospitalean geratu zela hankak ebakita hiru edo sei hilabetez. Egun hartan ez nuen goserik. Gogoan dut ogi zati bat nuela bizkar-zorroan, baina ezin nuen jan. Ez nuen animorik, ez nengoen ez zoriontsu ez triste. Ikusitako guztiaz gogoratzean, negar egiten nuen; bortxatu zituzten neskak, mutilaren istripua... Pentsatzen hasi nintzen: "zertarako ateratzen nintzen nire herrialdetik? Jakin izanez gero, ezkondu egingo nintzateke". Damutzen hasita nengoen. Pentsatu nuen, "bizitza ona badaukat Nigerian, gaztea izanik, ikasketak eta lanak, orain zertarako balio dit horrek?". Agian aitak arrazoi zuen. Negar egiten nuen eta oso triste nengoen, baina ez nuen inorekin hitz egiten horretaz. Biharamunean gauez berriro ere trenera igotzen saiatu ginen. Taldeko pertsona batzuek esaten ziguten jende asko hil zela trenera igo nahian. Ni beldur nintzen, bazirudien taldeko gainerakoei berdin zitzaiela, baina ni dardarka nengoen.

Trenera igo eta Fezera iritsi ginen, eta poliziak handik bota egin gintuen berriro ere. Aurrez esan zidaten polizia jendea botatzen hasten denean, hobeto dela ez itxoitea: oinek azkarrago ibili behar dute buruak baino. Poliziak bi edo hiru pertsona atzeman zituen eta gainerakoek hurrengo geltokiraino jarraitu genuen. Babes bila hasi ginen oinez, finka batera irisi eta ogia eta oliba-olioa eman zizkiguten. Gauaren zain egon behar genuen trenera igotzeko, egunez merkantziak eramaten dituzenez ezinezkoa delako. Gauez, trenera igo ginenean, barruan hondarra zegoen eta gure gainetik bota genuen poliziak berriro ez atzemateko. Oujdatik Rabatera zihoan lehen trenean, kanpotik helduta gindoazen eta poliziak geratu gintuen Fezen; bigarren trenean, berriz, barruan gindoazen. Trena geratzen zenean, adi egon behar zenuen polizia handik zebilen edo ez entzuten. Ez zinen mugitu behar, batzuetan bagoietara igotzen zirelako eta hondarre-

tan sartuta egon behar zenuen mugitu gabe. Batzuetan, hondarraren ordeztu harriak edo simaurra eta gorotzak ere egoten ziren. Gero, lau edo bost aldiz joan behar izan nuen, baina lehen aldian zirrara egin zidan.

Bigarren tren hura hartu genuenean Rabatera iritsi ginen, mutilari deitu eta han ginela esan nion. Takadoun izeneko Rabateko auzo batera joateko esan zidan, afrikarren ghetto esaten diotenera. Esan zidan galdetzeko bidean nola irits nintekeen. Gogoratzen naiz Takadoun non zegoen galdetzen nuenean auzo arriskutsua zela esaten zidatela, han etorkinak zeudela, beti liskarrak zeudela, eskuak mozten zizkizutela eta denetik egiten zizutela.

Rabateko marokoarrak jatorrak ziren. Jan gabe zeundela esaten bazenien, ogia, kuskusa edo etxean zeukatena ematen zizuten. Ostirala bazen, janari bat ematen zizuten. Zure herrialdeko batek janaria emateko, berriz, berarekin oheratu behar zenuen.

Bandak osatzen ziren eta elkarren aurka borrokan jarduten zuten. Nigerian “kotzie” esaten zaie. Etsaitzat dute elkar eta borroka egiten dute. Ni han egon nintzenean, etorkinek ezin zuten Marokon lan egin, eta banda asko osatzen ziren. Orain lana egin dezaketenez, ez dira hainbeste banda egongo; baina, orduan, izugarria zen. Denbora asko egin genuen han, eta etxea ordaintzeko dirurik gabe geratu ginenean, Oujdara itzuli ginen, han bizitza errazagoa delako, merkeagoa da. Han, Oujdan, etxe abandonatu batean geunden, finka moduko batean. Ia 1.000 pertsona edo gehiago bizi ginen; ghetto bat zen. Putzutik hartzen genuen ura. Finka Oujda hiritik pixka bat urrun zegoen. Han *guideman* asko zeuden, marihuana eta haxixa erre eta whiskia edaten zutenak, dirua zutelako.

Behin, Mohamed izeneko mutil batekin berrikerian ari nintzen, eta ea arabiera banekien, musulmana nintzen eta erreztatzen nuen galdetu zidan. Baietz esan nion, baina benetan ez nuen erreztatzen. Orduan, nekazari nengo. Mutil batekin nengoen eta banda batean zegoenez dirua ekartzen zuen janaria erosteko, eta horixe nahi nuen nik. Ez nintzen nire herrialdetik atera Marokon bizitzeko. Bi urte neramatzen. Egia da egunero jan behar genuela, baina nire herrialdera itzultzea pentsatzen ari nintzen.

Egun batean, Mohamedekin, mutil arabiarrekin, hitz egiten ari nintzela, proposatu zidan ea nahi nuen 80 € haxix saldu (800 dirham dira) eta sobera geratzen zena niretzat izango zela. Plaka bat eman zidan eta mozten erakutsi zidan. Eta haxixa saltzen hasi nintzen lanean. Negozioen ikasketak egin nituen, ez zen zaila niretzat. Gainera, kirol-poltsa bat erosi nahi nuen; oraindik etxean daukat. Poltsarekin egiten nuen lo, inork ez lapurtzeko. Handik bi egunera, beste plaka bat ekartzeko esan nion mutilari, eta astean hiru edo lau plaka saltzen hasi nintzen, bai eta dirua edukitzen ere. Geroago, whiskia eta vodka saltzen hasi nintzen. Komisaldegia parean saltzen zuten. Mohamedek esan zidan ez ninduela lagunduko eta musulmanak bezala janzteko. Burka bat eta arropa luzea ekarri zizkidan, eta komisaldegia eraikin berean dagoen denda batera joan nintzen. Harrapatzen baninduten, kartzelara joango nintzen zuzenean. 20 botila vodka erosi behar nituen eta ez nekien nola eramango nituen ezkutuan, bizi ginen lekutik urrun zegoelako.

Normalean dirua gizon batek gordetzen zidan denda batean. Dirua asko ez zuen jendearen dirua gordetzeaz arduratzen zen. Ez genion ordaintzen, baina jateko behar genuen guztia hari erosten genion. Hori zen tratua.

Hala, hiru hilabetean 2.500 euro aurreztu nituen. Han jendeak asko erretzen zuen eta negozioa oso ongi zihoan. Emakume asko prostituzioan lan egitera etortzen dira Espainiara eta diru guztia Marokon egoten diren mutil-lagunei edo anaiei bidaltzen diete; eta haietako askok drogan gastatzen dute. Adibidez, ezagutu nuen neska batek Espainian lan egiten zuen prostituzioan eta dirua bidaltzen zion Marokon zegoen mutil-lagunari; eta hark erretzen eta alkoholetan gastatzen zuen guztia, eta niri erosten zidan. Gainera, hark beste neska-lagun bat zuen, haurdun zegoena, eta neskek Espainiatik bidaltzen zion dirua neska hari ematen zion.

Matxismoa izugarria da han. Ni hiru gizonen jo ninduten, ez zidatelako ordaindu nahi, eta “hemen ni naiz erregea eta nik agintzen dut” esaten zidaten. Nik esaten nien ordaindu egin behar zidatela, eta nirekin zegoen mutila berriro ere Nigeriara joan zenez, bakarrik nengo. Ni haxixa eta alkohola saltzen hasi baino lehenago joan zen.

Hiru gizon haiek izugarritzko jipoia eman zidaten eta ezin izan nuen jaiki bi egunez. Gizonak zirenez, inork ez zuen esan “utzi ezazue bakean”. Min izugarria eman zidan. Ez dituzte emakumeak errespetatzen eta zor zidaten dirua jasotzeko eskubidea neukan. Gainera, nik prestatutako janaria jaten zuten eta bakarrik nengo; beraz, madarikazioa bota nien. Guztien aurrean biluztu nintzen areto handi batean. Guztien aurrean jo nindutenez, nik ere guztien aurrean bota nien madarikazioa. Esan nien: “nik zuei zerbait egin badizuet, herrialde honetatik ateratzean ez dut itsasoa zeharkatuko; baina, ez badizuet ezer egin eta zor zenidaten dirua eskatzea zuzena bada, zuetako bakar bat ere ez da bizirik aterako itsasotik”.

Nik ez nuen beste baliabiderik, ezin nituen kolpatu. Emakume batek madarikazio bat egiten badu, madarikazio hori bete egiten da. Handik bi egunera, ghetto liderrak deitu ninduen. Esan zidan bere herrialdean madarikazio bat botatzea txarra zela eta pertsonak hil egiten zirela. Hau esan zidan: “Zuk madarikazioa bota diguzenez, kendu egin behar diguzu. Ardi bat erosi behar duzu eta bihotza gordirik jan behar duzu, madarikazioa kentzeko”. Mohamedekin, mutil arabiarrekin, hitz egin nuen, finka batera eramanez ninduen, ardi bat erosi nuen 100 euroan eta eramanez egin nuen. Beraiek hil zuten eta labana batekin prestatu zuten; eta bihotza gordirik eman zidaten, jateko.

Astebete geroago, nirekin zebilen mutilak deitu zidan, kanpoan zegoenak, zergatik jo ninduten galdetuz eta negozio bat jarri nuela zergatik ez nion esan. Erantzun nion ez zidala dirurik utzi alde egin zuenean. Gainera, hiru arreba ditu: bat Italian, beste bat Espainian eta beste bat Norvegian. Haietako batek dirua bidali zion, alde egin zuen eta bakarrik utzi ninduen. Nola biziko nintzen? Dakidan arabiera apur hura ez baneki, ez nintzen bizirik aterako. Arabieraz hitz egitean, jatekoa ematen zidaten; eta horrek salbatu ninduen, nik normalean beste hizkuntza bat hitz egiten bainuen. Gainera, emakumeok ez dugu ezer balio, oherako bakarrik. Esan nion “Iparraldeko Sorgina” esaten zidatela, nire burua defendatzeagatik.

Ondoren, niri erosten jarraitu zuten eta negozioarekin segi nuen. Ez zidaten Nigeriakoek soilik erosten, Senegal, Ghana eta Kongokoek ere erosten zidaten. Askok saltzen nuen. Berrogei botila erosten nituen eta bi orduan bukatuta zeuden. Eta jaieguna bazen, are gehiago saltzen nuen. Batzuetan, jende berria iristen bazen edo berriro ere kanpalekutik pasatzen zen jende ezaguna bazen, jai antolatzen zen. Jendeak edan eta dantza egiten du, eta Espainiara joan behar izateaz ahaztu egiten dira. Diru dezente aurreztu nuen. Berrehun euroko sakelako telefono bat erosi nuen Espainiara etortzeko, eta oso pozik nago.

Orduan, nirekin zegoen mutila itzuli zen. Alde egiteko adina diru aurreztu nuenez, zor nion dirua ordaindu eta Espainiara joan nintzen. Oujda hiritik hurbil dagoen kostaldeko herri batera joan eta ordaindu egin nuen, txalupa batean Cadizera joateko.

## ► Etorrera

Cadizera iritsi nintzenez ez nekien nora jo. Ez nuen inor ezagutzen eta ez nekien nora joan. Poltsikoan 800 euro nituen. Gurutze Gorriko jendea zegoen han. Mutil bati galdetu nion eta agian lagunduko zidan emakume bat ezagutzen zuela esan zidan. Ez zuen nire hizkuntza hitz egiten, baina musulmana zen. Eta neska haren etxera joan nintzen. Putetxe bat zeukan eta puta gisa lan egitea eskaini zidan. Egun batean, negarrez ari nintzen, begietan pikantea bota zidalako. Ghanako mutil batek ikusi ninduen eta ea zer nuen galdetu zidan. Bere etxera joatea eskaini zidan eta esan zidan ezagutzen zuela Valentzian droga saltzen zuen mutil bat. Nik Marokon horretan lan egin nuenez, baietz esan nion eta Valentziarako txartel bat erosi zidan. Iritsi nintzenez, mutilari deitu nion, autobus-geltokian zain egon eta etxera eraman ninduen. Tratu bat egin genuen; nik astean 500 euro irabaziko nituen. Baina, arazoa zen bezeroak igande gauez deitzen zuela. Mutilak astean 5.000 € saltzen zituen. Bezero asko espainiarrak ziren, abokatuak, jende garrantzitsua. Batzuek 500 euro erosten zuten, beste batzuek 200 euro... saltzen genuen gutxienekoa 50 euro zen. Ezin zenien droga zuzenean eman. Adibidez, besarkatu eta poltsikorik bazuen, bertan sartu, eta dirua jaso. Edo musu bat ematen zizun, eta droga ahoan sartzen zenion. Batzuetan, kafetegi batera joan eta pertsonarekin topo egiten zenuen. Ezagutuko bazenu bezala agurtu, droga paper batean sartu eta diruarekin trukatzeko zenuen. Taktika desberdinak dira, bezeroak zer eskatzen duen. Batzuek urrearekin ordaintzen dute, beste batzuk arroparekin, erloju batekin edo sakelako telefono batekin. Nabarmentzen da bezero bat garrantzitsua denean; izan ere, droga autoan uzten zenuen, esate baterako.

Zenbait bezero enpresaburuak dira, eta droga jakin batzuk hartzen dituzte esna egoteko. Nire nagusiak astean 5.000 euro irabaz zitezkeen, eta pozik bagegoen 600 euro ematen zizkidan eta arropa erosten zidan. Baina jo egiten ninduen, gehienetan gauez joan behar zelako droga eramatera. Ni esnatzera etortzen zen eta gogor jotzen ninduen. Orduan ezin nuen lorik egin, ez egunez ez gauez. Egunez, adibidez, bazkaltzen ari zinen eta esaten zizuten "utzi janaria eta zoaz". Oso gogorra zen. Diruagatik bakarrik nengoen pozik. Hiru hilabete pasatu nituen, eta ondoren, 1.500 euro bidali nizkion Marokoko mutilari, Espainiara etor zedin. Hura zaindu behar nuela sentitzen nuen, Nigeriara bageunde ni baino askoz pobregoa litzatekeelako. Hasieratik pena eman zidan haren bizimoduak. Elkarrekin ibili ginen, baina nik banekien ezin nintzela harekin ezkondu. Ez genuen etorkizunik bikote gisa, oso pentsamolde desberdina guelako. Haren ama itsua zen eta oso bizimodu zaila zuen. Pena ematen zidan, oso familia pobrea zen eta nirearekin alderatuta oso desberdina. Ni orain hemen banago ere, asko gozatu nuen nire herrialdeaz, izugarri. Oso ongi pasatzen nuen, ez zitzaidan ezer falta.

Mutil nigeriarrari dirua bidali nionean Espainiara etortzeko, neska bat ekarriko zuela esan zidan, niretzat lan egin zezan. Esan nion ez nuela nahi; bidal ziezaiola bere arrebari. Nik dirua bidali nion hona etor zedin. Baina, niri deitzen jarraitzen zuenez, sakelakoa bota eta beste bat erosi nuen. Nire kontzientzia lasaitzeko bakarrik egin nuen hori. Bortxaketetatik salbatu ninduen. Ongi tratatu ninduen. Eta nik ez nuen nahi hark esatea "begira nola zaindu nuen eta zenbat ordaindu didan". Sakelakoaz aldatu ondoren, ez nuen haren berririk izan.

Valentzian nengoenean, Cadizen ezagutu nuen Ghanako mutilari deitu eta esan nion gauez ezin nuela lorik egin bere anaiak jo egiten ninduelako. Esan zidan negozioa horrelakoa zela, oso arriskutsua zela. Bueltan Nigeriara bidaliko ninduela egin zidan mehatxu. Nik, garai hartan, berarekin ezkondu behar nuela esaten nion; gezurra esaten nion, hark niri laguntzeko.

Hark Burgoseko mutil bat ezagutzen zuen. Hari deitu eta Burgosera bidali ninduen, han agian Caritasera joaten lagunduko zidatelako. Burgosera iritsi nintzenez, zain neukan mutilak Caritasen atean utzi ninduen. Gogoratzen naiz goizeko seietan iritsi nintzela eta ez zegoela zabalik. Zortzietan edo bederatzietan zabaldu zuten. Ordu horretan Caritaseko abokatuak sartu zen, eta ez naiz harekin ahaztuko. Nire historia azaldu nion eta esan zidan ez arduratzeko, harre-  
ra-etxe batera bidaliko ninduela. Ez nuen hizkuntza ulertzen, baina egunero eskolara joaten nintzen. Handik gutxira, lana aurkitu nuen haur bat zaintzen. Hilean 500 euro ordaintzen zizkidaten; eta ondoren, barneko gisa 1.050 euro ordaintzen zizkidaten. Barneko langile gisa familia aberats batentzat egin nuen lan. Onena zen andrearen bi seme-alabek ingelesez hitz egiten bazekitela. Semeak AEBn ikasten zuen, pilotua zen eta oporretan etortzen zen; alaba Ingalaterran ari zen ikasten. Han ikasi nuen gaztelania.

Oso aberatsak ziren. Denetik irakatsi zidaten. Etxe hartan ikasi nuen sukaldean, telebistari begira. Ikastaro bat egin nuen arren, gehiago ikasi nuen Karlos Argiñano ikusiz. Karlosek edozer prestatzen zuela ere, hau esaten nuen nik: "Goazen supermerkatu!" Eta asko gustatzen zitzaizkien. Andrearen senarra eta senarraren arreba zaintzen nituen. Supermerkatu joaten ginen eta nik esaten nion zer erosi behar genuen. Eta esaten zidan: "oso garestia, ezta?". Nik esaten nion luxuzko janaria zela. Horrela ikasi nuen janariak prestatzen eta seme-alabei asko gustatzen zitzaizkien. Ongi tratatzen ninduten, baina astoak baino lan gehiago egiten nuen. Ez neukan ez kontraturik ez paperik. Caritasen nengoen errolatuta, eta esan zidaten hiru urte pasatutakoan kontratua egingo zidatela. Baina, hiru urteak pasatu baino lehenago, mutil-laguna aurkitu eta espainiar batekin ezkondu nintzen. Orduan, lana utzi nuen. Familiak negar egin zuen eta nik ere bai. Uste dut haien bihotza jatekoa prestatzen irabazi nuela, lisatzen oso txarra nintzen eta. Badirudi aurrez egon zen neskak ez zekiela jatekoa prestatzen. Garbiketak egiten nituen eta senarraren arreba oso ongi zaintzen nuen, gorpildun aukian zegoelako. Nire ama balitz bezala zaintzen nuen, makillatu egiten nuen, eguneko krema, gauekoa eta zimurren aurkakoa ematen nion, eta azazkalak margotzen nizkion. Etxe hartatik atera ondoren jakin nuen zimurren aurkako kremak 300 euro balio zuela. Inoiz ez nuen pentsatu hain garestia izango zenik.

Clara ezkondu egin zen eta handik gutxira alaba bat izan zuen. Senarrak gaizki tratatzen zuen, Clarak salatu egin zuen eta urrutze-agindua eskatu zuen. Burgosetik Bilbora joatea erabaki zuen, senarrarengandik urruntzeko. Bi urte pasatu ditu Bizkaian eta orain Madrilen bizi da alabarekin eta han egiten du lan Iberdrolako komertzial gisa. Bizkaian egon zen artean, lana aurkitzea zen haren nahia. Goi-sukaldaritzako ikastaro bat egin zuen Donostian eta lan bila zebilen etengabe. DSBE kobratzen deserroso zegoela esaten zuen.

## 6.2.- Sara: amets baten bila

### ► Jatorrian

Nire izena Sara da, 34 urte ditut eta Nigeriako hegoaldekoa naiz. Benin City hirian jaio nintzen, Edo estatuko hiriburuan, baina amonarekin hazi nintzen handik lau ordura dagoen herri batean. Familia kristaua gara. Hegoaldean gehienak kristauak dira. Sei anai-arreba gara, lau mutil eta bi neska. Ni hirugarrena naiz, eta nesketan zaharrena. Hirian bizi ginen, bi gela, egongela txiki bat eta erdian ate bat zuen gela bateko etxebizitza txiki batean. Koltxo bakar bat geneukan. Afrikan erabili ohi ditugun oihalak jartzen genituen lurrean eta han egiten genuen lo guztiok.

Lau urte nituela, amona ikustera joan nintzen oporretan, eta amona ekonomikoki gurasoak baino askoz hobeto zegoela ohartu nintzen. Hobeto elikatzen ninduen. Aitak ez zuen hori onartzen. Nola zitezkeen alaba hirian jaio eta herri batean haztea, guztiok hirira joan nahi zutenean! Ama, berriz, zoriontsu zegoen, hartara amona ez zegoelako bakarrik. Gainera, bazekien ni ongi egongo nintzela.

Amona autobusaren geltokiaren parean zegoen baserri batean bizi zen. Aita nire bila etortzen zen atzera hirira eramateko, baina etortzen zen bakoitzean landan ezkututzen nintzen. Autobusetik jaisten ikusten nuen amonaren etxetik eta izeko baten etxera joaten nintzen aitarengandik ihesi; aita nekatu egin zen eta bertan utzi ninduen. Hamasei urte bete arte egon nintzen herrian.

Nire aita jostuna zen eta askotan ez zuen alokairua ordaintzeko adina diru izaten. Ama ile-apaintzailea zen eta bost gauza saltzen zituen kiosko batean, baina ez zuen ia irabazirik ateratzen. Horrekin bizi ginen. Astebururo nire anaiak herrira etortzen ziren, amonaren etxera, haren baratetik elikagaiak lortzera, nekez iristen zitzaigulako. Eta niri jatea gustatzen zait; ama eta anaiak ohitu egin ziren, baina niri gorputzak gehiago jatea eskatzen zidan oso txikitatik. Beraz, amonaren etxera iritsi eta bertan geratzeko aukera ikusi nuenean, hantxe geratu nintzen. Eskolara joaten nintzen, baina ez nintzen oso ikasle ona eta hamalau urterekin eskola utzi nuen. Amona herriko erregearen alaba zen. Denetik zeukan, baina lan egitera behartzen ninduen. Eta eskola utzi nuenean, landara joatera behartzen ninduen, pobreen moduan. Han dirua duenak boterea du. Dirua badago, baina desberdintasun handiak daude. Boterea dutenek postu garrantzitsuak haien familiakoei ematen dizkietelako; guztia oso pertsona gutxiren artean banatzen da. Nire herrialdean, familia pobre batean jaio bazara, ez duzu etorkizunik.

Hamasei urterekin hirira itzuli nintzen, baina ez nintzen egokitzen. Egia esan, lagun guztiak hirian zeudelako itzuli nintzen, bestela bakarrik geratuko bainintzen herrian. Gurasoak oso pobreak zirela eta amonak bizitza eginda zeukala ohartzen nintzen. Gainera, amona ez zen ongi konpontzen aitarekin. Aita oso pobrea zen. Amonak esaten zuen aita alferra zela ez zuelako landan lan egin nahi. Baina aitak ezin zuen landara joan, jostuntzako negozioa egun batez uzten bazuen berarentzat lan egiten zuen jendeak arropa gaizki josten zuen eta gero aitak ordaindu behar zuen. Ez zuen negozioa utzi nahi landara joateko. Nik eskola utzi nuen nire burua oso txarra delako liburuetarako. Gainera, materiala falta zitzaidan. Amonak ematen zizkidan elikagaiak eta arropa, baina eskola aitak ordaintzen zuen. Ez zidaten eskolan sartzen utzi, aitak ez zuelako matrikula ordaindu. Eder-eder jantzita joan nintzen, eta sartu orduko eskolako landara lanera joateko esan zidaten. 8 ordu pasatzen nituen han lanean. Eskola ordaindu ezin zuten umeak landara bidaltzen zituzten. Eguzki gogor harekin eta eguzkitako betaurrekorik gabe, arazoak izan nituen ikusmenean. Landan hasi orduko, amonari esan nion ez nintzela gehiago joango, etxean geratuko nintzela bere lurak lantzen. Eta hori egiten nuen. Gero, igandetan merkatura joaten nintzen barazkiak saltzera, eta irabazten nuen dirua amari bidaltzen nion. Baina ez zuen onartzen, amonari lapurtutako dirua izan zitekeelakoan. Amak ez zuen nahi nik berari dirurik ematea, edozein egunetan amonari lapurtu niezaiokelako amari emateko. Amak ez zuen nahi nik lapurretan ikastea. Amari dirua ematen hasiko banintz eta une batean azokan saltzeagatik ateratakotik amari emateko ez baneuka, amonari kenduko nion, asko zeukan eta. Amak esaten zidan diru hori gordetzeko, aurrezten joateko. Eta 500 euro inguru aurreztu nituen, amonarekin ez baneukan gasturik. Amak pena handia ematen zidan, dendatik itzuli eta etxean jatekorik ez zegoenean aitak jo egiten zuelako. Afrikan gizonak jo egiten dute. Nik oso gaizki neraman hori. Ez zait gustatzen aitak ama jotzea. Eta horregatik, amari nolabait laguntzeko gogoia nuen. Ikusi nuen eskola nik baino lehen, 12 urterekin, utzi zuen neska bat Italiara joan zela. Eta familia hobeto zegoela zen jasotzen genuen albistea. Nik harekin telefonoz hitz egiten nuen eta guztia oso eder aurkezten zidan. European, aireportura iritsi bezain pronto, ikusten zaituen lehen zuriak dirua oparitzen dizula esaten zidan. Lan asko dagoela esaten zidan, eta zaborretan gauza ugari daudela. Landan lan eginez gero, hilean 3.000 euro irabazten direla esaten zidan. Amona bat zaintzen baduzu, 4.0000, eta haurrak zaintzen badituzu, 3.500. Baina guztia gezurra zen. Ez zidan egia esaten, ez zidan esaten prostituzioan lan egitera etortzen zirela.

Horrek alde egitera bultzatu ninduen. Nire ametsa mediku izatea zen. Esan zidaten European gobernuak ordaindu egiten dutela ikasteagatik. Eta orduan, 17 urterekin, gurasoei esan nien Europara eramango ninduen norbait bilatzeko. Amak esan zidan hori oso zaila dela; norbaitek ni Europara eramateko, abala eduki behar nuela, edo abala emango zidan norbait. "Eta nork emango digu abala?", galdetu zidan. Ez daukagu etxerik, ez daukagu ezer abal moduan emateko. Nik esan nion ez zuela axola. Bilatu zezala ni Europara eramango ninduen norbait, eta gero bilatuko genuela modua. Nire herrialdean badago eta bidea dakien jendea; nik Bilbora joan nahi eta zuk orientatuko baninduzu bezala, nik zuri ordaindu, nik Bilbo ez dut ezagutzen, baina zuk bai, orientatu egiten nauzu, pertsona talde batekin utzi eta nik bizimodua aterako dut. Aitak lankide bat aurkitu zuen, dendako bizilaguna, eta egun batean harekin geratu ginen. Baina, ez dakit zergatik, ez nintzen hartaz fidatu une hartan eta itzarotea erabaki nuen. Une hartan, pertsona hari ezetz erantzun nion eta hilabete batzuk geroago, amari artean interesatuta negoela eta berriro bilatu zezala eskatu nion. Egunez egun gero eta pobreakoak ginela eta amak asko sufritzen zuela ikusten nuen, eta lagundu egin nahi nion.

Egun batean, amak esan zidan gizon bat aurkitu zuela, morroi bat guk esaten diogun moduan. Baina, zenbait gauza eskatu zituen: dirua eta baldintza onetan zegoen etxe bat, abal gisa. Guk ez geneukan horrelako ezer. Amak bere aitabitxiaren etxean egin zuen topo gizon harekin, gizonaren beraren aitabitxia ere bazen, gainera. Aitabitxia artzain tradizional baten modukoa da, sendagai naturalak ematen ditu, etab. Mediki tradizional moduko bat da.

Eskatutakoa ez geneukanez, joan egin zen, baina lau hilabete geroago berriro agertu zen, eta baietz esan zuen, egingo ziola mesede hori nire amari. Esan zigun: "familiak pena ematen dit, lagundu egingo dizut". Morroiak hemengo 10.000 euro halakoren bat eskatzen zigun. Aitak bazuen lursailen bat bere aitaren herrian, oinordetzan jasota; ez ziren lur onak, urrun zeuden eta abandonatuta, baina saldu egin genituen, abalaz gain dirua ere erakutsi behar genuelako.

Nik oso garbi neukan. Hamazazpi urte baino ez nituen, baina burua argi neukan, hogeitetik gorako batek bezala. Herrian hazi nintzen amonarekin, mugitzeko aske nintzen. Ni baino neska helduagoekin ibiltzen nintzen beti. Nire adineko beste neskek baino helduagoa nintzen. Ez nintzen arriskatuko Marokotik joaten, hori garbi neukan; Marokon jendea hil egiten da itsasoan, seguru, hori zorte-kontua da. Gurutzatzeko aukera izango banu, agian hil egingo nintzateke. Nik hegazkinez bidaiatu nahi nuen, hori garbi neukan.

### ► Igarobidea

Bere alaba banintz bezala ekarri ninduen. Gizon hark 19 urteko alaba bat dauka, Espainian jaioa, eta haren agiriarekin ekarri ninduen. Alabaren datuak eta hatz-marka zituen agiriak, baina nire argazkia. Hegazkina Nigeriatik Greziara zihoan. Biok egin genuen bidaia. Baina, Grezian poliziak atzeman ninduen. Herritik ez nintzen inoiz atera, ez nekien zer ziren eskailera mekanikoak, eta igotzen saiatzean, erori egin nintzen. Polizia etorri zen laguntzera eta grezieraz hitz egin zidaten. Ez nuen ezer ulertzen. Agiriak eskatu zizkidaten, eta nirea ez zela ikustean, kartzelara eraman ninduten. Gizon hura nire aita ez zela esan nien, nire aita zela esango banie arazoak izango lituzkeelako. Harekin nentorrela ukatu egin nuen. Hori zen tratua. Atzematen baninduten, ezin nuen esan ezagutzen nuela. Gogoratzen naiz ez nintzela beldur. Halako gogoia neukan Europara etortzeko, ez bainintzen beldur! Zoriontsu nengoan. Hogeita bat egun pasatu nituen kartzelan eta pozik nengoan, Nigeriako txabola batean bizitzetik niretzat jauregi baten modukoa zen kartzela batean bizi izan nintzelako. Gutxienez European nengoan. Ez nintzen bueltan bidaliko ninduten beldur, horrek ez ninduen arduratzen. Aitak ere ez zuen zor handiegia egin, eta beraz, ez zuen gehiegi galduko. Eta banekien, Nigeriara bidaltzen baninduten, morroiak berriro ekarriko ninduela.

Atzeman nindutenean, agiriak faltsuak zirela eta aurkitu egin nituela esan nien. Gizon hark eman zizkidala esango banie, kartzelan sartuko lukete bizitza osorako, trafikoa leporatuta. Zin egin nuen ez nuela egia esango. Ni aurretik nindoan kontrolean. Poliziak atzeman ninduela ikusi zuenean, komisaldegira joan

zen salaketa bat jartzera, haren alabak pasaporteak galdu zuela esanez. Alabaren agiriak hilabete batzuk lehenago galdu zituela, bila jardun zuela, baina ez zituela aurkitu esan zien.

Nik pasaporteak hilabete batzuk lehenago Nigerian lurrean aurkitu nuela esan nien. Eta hark esan zien Nigerian egon zela oporretan eta han galdu zituela alabaren agiriak, ez zekiela non zeuden, bi hilabete lehenagotik haien bila zebilela eta azkenean berak bakarrik egin behar izan zuela bidaiak.

Atzerritarren sailetik agiritik ez izatea leporatu zidaten eta nire herrialdera bidali nahi ninduten bueltan. Morroiak abokatu bat bilatu zuen niretzat, eta dirua eta behar nuen guztia eraman zidan. Hori ere akordioaren parte zen. Gaizki ateratzen bada, baita atzera zure herrialdera itzultzen bazaituzte ere, zuk sekula ezin duzu esan hark ekarri zaituenik. Espedienterik ez zegoenez, ez ninduten nire herrialdera bidali eta aske utzi ninduten. Hilabete pasatu genuen Grezian, gizonak (abokatu boteretsuekin harremanetan zegoen) Espainiara joateko beste agiri bat lortu bitartean. Agiria lortutakoan, Madrilerira iritsi ginen hegazkinez, eta handik Valentziara eraman ninduten.

### ► Helmugan: Egun bat ona, 29 egun txar.

Valentziara iristean, errealitatea hasi zen. Gizonak deitu egin zidan, hitz egiteko. Afrikan entzun duzun guztia gezurra da. Hemen ez duzu ez lantegi batean ez landan lan egingo. Kanean egingo duzu lan, beste neskek bezala. 10.000 euroetatik 1.000 ordaindu genituen, eta 9.000 ordaintzea falta zitzaigun. Autoan eraman ninduten, Valentziako kaleetan zehar. Neska batzuk aurkeztu zizkidaten eta haiek ni bezala hasi zirela esan zidaten. Haiek erosten dizute guztia. Soinekoak, arropa, etab. Zuk etxebizitza ordaindu behar zenuen, 300 euro, baina neska guztiok gela batean egiten genuen lo, ohe batean. Etxebizitza bost neska geunden, guztiak Nigeriakoak, Benin Citykoak. Pilatuta bizi ginen. Ni ez nengoen ohituta. Gogorra egiten zitzaidan. Sei pertsona bizi ginen han. Ohe batean bost pertsonak egiten genuen lo. Atsedean hartu ahal izateko, gurutzatuta egiten genuen lo, hankak kanpoan genituela. Nik ezin nuen gehiago, eta morroiak trastelekura bidali ninduen; koltxo bat soilik sartzen zen han.

Janaria ere ordaindu behar zenuen, berrogeita hamar euro, eta haiek nahi zutena jan behar zenuen. Negozio izugarria da haientzat. Gogoratzen naiz andreak urrea eta guzti zeukala. Pertsonekin trafikatzeko dute ogibide. Baina zuk ezin duzu ezer esan, zin egin baituzu, eta budua zure kontra jarriko litzateke.

Buduak botere handia dauka. Zin egindakoa betetzen ez baduzu, zeure buruari baino gehiago familiakoei kalte egin diezaioketu. Akordio bat da; zuk hitza ematen duzu eta beteko duzula zin egiten duzu. Buduaren aurrean gizonak zin eginarazi zidan: "Zin egizu Europara iristen zarenean nire dirua ordainduko didazula". "Zin dagit ordainduko dizudala". "Zin egizu poliziarik ez diozula esango ni zure 'txuloa' naizenik". "Zin dagit poliziarik ez diodala esango zu nire 'txuloa' zarenik. Edozein arazo sortuta ere, etxean konponduko dugula. Zin dagit etxean konponduko ditugula". Elkarte batera ez zarela hurbilduko ere zin egin behar duzu. Hori erabat debekatuta dago. Batetik, negozioa da beraiantzat, baina, bestetik, niri asko lagundu zidan eta familiakook uste genuen guri mesede bat egiten ari zela. Nik familia neukan Espainian, eta haietako batzuk dirua egin dute gainera Europan; baina, ez zigen inork lagundu nahi izan.

Espainiara iristen zarenean, zorra ordaintzen amaitu arte familiari prostituzioan lanean ari zarela ez kontatzea ere zin egitera behartzen zaituzte. Nik urtebete eta 8 hilabete behar izan nituen, 10.000 euroak ordaintzeko. Bene-benetan 40.000 euro ordaindu nituen, gauza guztien truke dirua eskatzen dizute eta. Zuk ezin duzu zuzenean ezer ordaindu. Arropa sarekoek erosten dizute, eta gero 300 euro eskatzen dizkizute. Eta ilea apaintzearekin berdin. Ile-apaintzailea etxera etortzen zen, eta gero 100 euro eskatzen zizkizuten. Janariarekin ere beste horrenbeste; supermerkatuak joaten ez dizute uzten, haiek esaten zigutenez, han poliziak harrapa zaitzakelako. Ezin duzu ezer egin. Zeharo kontrolatuta zauzkate. Haiek erosten dizute guztia. Eta janaria prestatzen dute. Beren seme-alabei sobera geratutakoa ematen ziguten guri. Esate baterako, bi eltzeko egiten bazituzten, ona haiek jaten zuten. Eta txarra guretzat, oilasko-izter bat bostentzat, adibidez. Gainera, esaten ziguten ezin ginela gizendu. Niretzat jatekoarena izan zen gauza gogorrenetako bat. Oso gutxi ematen ziguten; bi mandarina gosaltzeko eta koilarakada zabal bat arroz eguerdian, neskato batentzako adina ere ez.

Eta mehatxatu egiten gintuzten. Adibidez, ezin genuen telefonoa ukitu. Gure familiekin hitz egiten genuenean, haien aurrean hitz egiten genuen. Bost minutu zenezkan, eta hau bakarrik esan zenezakeen: "ama, ongi nago". Hiru minutu pasatutakoan, "agur, ama; lanera noa" esan behar zenuen. Bost mintuak gaituzten gero, zeuk ordaindu behar zenuen kontua, eta oso garestia izaten zen. Ama oso pobrea da eta ez dauka telefonorik etxean. Gizon horren familiaren etxera joan behar zuen, telefonoz hitz egiteko. Kontrola erabatekoa zen. Adibidez, ez dizute uzten etxebizitza batean alokairuan bizitzen, dirua itzultzen duzun bitartean. Janariaren, gelaren alokairuaren, ile-apaintzailearen, etxeko gastuen eta abarren kontura ere diru asko ordaindu behar izaten zen. Hilak 28 zituenean, dirua kalkulatu genuen. Hilabete irabazitako dirutik kentzen zituzten gastu guztiak, eta gainera, zati txiki bat baino ez zen zorra ordaintzeko. Azkenean, askoz ere diru gehiago itzultzen genuen.

Iritsi eta denbora gutxira, morroiak abokatu batengana eraman ninduen asiloa eskatzeko, baina azkenean ukatu egin zidaten. Txartel gorria eman zidaten, baina hiru hilabete behin berritu egin behar da. Ez naiz ongi gogoratzen. Une jakin batean ez dizute berritzen eta hogeita lau orduan herrialdetik atera behar duzu. Asiloa eskatzera eramaten zaituzte, poliziak kanean geratzen bazaitu ez atzemateko. Badakit abokatuak helegiteak jartzen jarraitu zuela, baina ez daukat beste informaziorik. Garai hartan, artzainaren ondoan zegoen ardia bezala jardun nuen. "Joan zaituz abokatuarena" esaten zidan, eta joan egiten nintzen. Gero, ez zidaten informaziorik ematen. Nik ezin nuen abokatuarekin hitz egin. Asilo-eskaera egiteko, ez zuten Nigeria erabili, Sierra Leona baizik, han gerran zeuden eta.

Han egotea kartzelan egotea baino okerragoa zen. Aukeraterik izan banu, kartzela aukeratuko nuen. Ikaragarria izan zen, ezagutzen ez duzun herrialde batean zaudelako, informazio faltan, hizkuntza jakin gabe. Eta, zure ustez, zu orientatzen ari den norbait aurkakoa egiten ari da. Esaten dizute ezin zarela kalera atera, poliziak atzematen bazaitu zure herrialdera bidaltzen zaituztela, eta ez dizute uzten elkarteetara hurbiltzen. Medikarenera edo ginekologoarenera ere ezin duzu joan. Gaixorik zaudenean, ez dizute medikarenera joaten uzten. Oso larria izan behar du medikuarengana eramateko; laneko istripu bat izan baduzu, jo egin bazaituzte, eramango zaituzte medikuarengana. Gainera, bakarrik sentitzen zinen. Behin, gerru-infekzioa izan nuen. Hasieran, ez zidaten jaramonik egin, eta ondoren, etxeko sendagai bat eman zidaten, baina oso gaizki jarraitzen nuen. Adiskide batekin hitz egin nuen, kontatu nion eta medikuarengana eraman ninduen ezkutuan. Bakoitzak taxi bat hartu genuen eta nik ordaindu nuen. Jakin izango balute, epelak jasoko genituzke.

Urtebetez, nire bizimodua lanetik etxera eta etxetik lanera joatea zen. Ordutegia ere kontrolatzen zizuten. Etxera beranduago iritsi zitezke, baina lehenago ez. Batzuetan nekatu egiten nintzen eta etxera joan nahi izaten nuen, lo egitera; baina ez zidaten uzten.

Laneko baldintzak oso gogorrak dira. Kanean egiten duzu lan; autoak geldiarazi eta barruan sartzen ginen. Segurtasun eza bizi genuen, bezero txar bat etor zitezkeen eta aurpegia txikitu, eta ez zen inor ohartzen. Niri batek burua ireki zidan eta beste batek pistola bat jarri zidan lepoan.



Une jakin batean, nire herrialdera itzuli nahi nuen. Urtebete pasatutakoan, kalkuluak egin eta 4.000 euro falta zitzaizkidala ikusi genuen, erdian nengoela. Egun hartan bertan esan nion: "Nire herrialdera itzuli nahi dut". Hark esan zidan: "zer? Ezin duzu hori egin. Pobre nazkagarri bat baino ez zara eta ez dakizu zer balio duen diruak. Nik nire dirua gastatu dut, arriskatu egin naiz, eta zuk zure herrialdera itzuli nahi duzu niri ordaindu gabe". Behea jo nuen. Kalera joan nintzen negarrez. Kalean animatu egiten ninduten, beste batzuk okerrago zeudela, aldi baterako soilik zela eta laster aske izango nintzela esanez. Animatu egiten zintuzten, baina ezin zizuten lagundu. Eta egia da azkenean ohitu egiten zarela eta gauza normal bat bezala ikusten duzula. Egun batean, hasi berriak ziren neska ahulagoak ikusi nituen eta ni baino askoz okerrago zeudela ohartu nintzen; eta orduan normaltzat ikusten duzu, ez zarelako ez bakarria eta ez okerren dagoena.

Arazoa zen andreak eta morroiak alde guzietan zituztela kontaktuak. Kalean lan egiten duten lagunak zituzten eta haiek kontrolatzen gintuzten. Denbora guztian kontrolatzen gintuzten. Beti zelatan zeuden, eta ez ziguten lagunik egiten uzten, esate baterako. Erabat kontrolatzen zaituzte. Adibidez, haiek gabe joaten bazinen telefonotegi batera, zigortu egiten zizuten, diru kantitate bat kentzen zizuten.

Egun batean, pixka bat aparte zegoen telefonotegi bat ikusi eta ihes egin nuen. Euria gogotik ari zuela oroitzen naiz. Inor begira ez zegoela ohartu nintzen, telefonotegira joan eta hangoari esan nion: "mesedez, eman gela bat, herrialde honetatik alde egin nahi dut, hiltzen ari naiz, ez naiz behar bezala elikatzen, ezin dut horrela jarraitu". Eta telefonotegiko mutilak bi ogi puska eman zizkidan. Telefonotegira joaten nintzen ahal nuenean. Orientatu egiten zidaten. Esaterako, gose banintzen, ezagutzen zuen kebab baten berri ematen zidaten, etab. Hura ezagutu nuenetik, askatasun handiagoa izaten hasi nintzen. Gauzak erakusten zizkidan. Adibidez, familiari dirua bidali nahi banion, hark laguntzen zidan bidaltzen, bere agiria baliatuz. Edo familiarekin hitz egin nahi banuen, izeko edo anaiaren bat bidaltzen zuen nire gurasoen etxera, bere etxera joan zitezene nirekin hitz egitera. Eta hartara familiarekin hitz egiten nuen morroia konturatu gabe. Hori guztia ezkutuan egiten genuen, norbaitek harekin ikusiko banindu biok arazoak izango genituzkelako. Bazuen nire egoeraren berri eta ni animatzen saiatzen zen, pasatuko zela esanez. "Bi edo hiru urte izango dira, baina ez zara hemen egongo bizitza guztirako". Horrek lagundu egiten zidan, egunerokoa oso gogorra baitzen. "Egun bat ona eta 29 txar", horrela definitu liteke gure egoera. Etxean hain gaizki geunden nahiago baigenuen kalean egon. Eta kalean nekatu egiten zinen eta atseden hartu nahi zenuen, batzuetan arratsaldeko seietatik goizeko bederatziak arte egoten ginelako. Etxetik kalera eta kaletik etxera beraiek eramaten gintuzten, eta kalean geunden artean ere kontrolatu egiten gintuzten. Autoan eramaten gintuzten pertsona batzuk ere bazituzten, eta ondoren, bueltaka ibiltzen ziren gu zelatatzen.

Kalean egotea gogorra zen. Askotan, polizia etortzen zen eta ezkutatu egin behar zenuen, eta berriro atera haiek alde egiten zutenean. Euria ere arazo bat zen, aterki bat bilatu behar zenuen, baina kalean hainbeste ordu pasatuta busti egiten zinen. Hasieran oso bakarrik sentitzen zara, informaziorik gabe, eta ez du nahi izaten inork zuregana hurbildu. Gero, lagunak egiten dituzu pixkanaka; urtebete eta lau hilabeteren ondoren, mutil-laguna izatera ere iritsi nintzen. Eramaten ninduen gizonaren lagun bat zen. Haren lagunik onena zen eta etxera etortzen zen; baina, morroiak ez zuen ezer jakin izan. Eramaten gintuenak kalean gu kontrolatzera joan ezin zuenean gu zelatatzera joaten zen pertsona zen. Beti kontrolatuta egoten ginen. Zenbait ordutan agertzen ziren: hama-bietan, hiruretan, bederatziatan. Adibidez, haiek pasatzen zirenean lankide batekin hizketan ikusten bazinduten, etxera iristean "200 euro gutxiago" esaten zizuten.

Morroiak batzuetan ezin izaten zuen etorri, janari afrikarra saltzen zuen denda bat zeukalako. Gauren batean etxean geratu behar bazuen hiru seme-alabekin, emaztea Frantziara joan zelako produktuak erostera, laguna bidaltzen zuen, nire mutil-lagun egin zena.

Une hartako zerbait zela, aldi batekoa zela pentsatzeak aurrera egiten laguntzen zidan. "Ez naiz hemen betiko geratuko". Oroimen ona nuen nik garai hartan. Zuk zenbaki bat eman eta ikusi hutsez gogoan gordetzen nuen. Orain nire sakelakoaren zenbakiaz ere ez naiz oroitzen. Italiako lagunaren telefonoaz ere oroitzen nintzen; hari deitzen nion, orientatzeko. Telefonoz dei egiteko txartelaren hogeitaz zenbakiak ere oroitzen nituen. Telefono-txartela hartu zenuela ikusten bazuten, zure dirutik 300 euro kentzen zizkizuten eta. Isun bat zen. Telefona erabiltzeko, eskatu egin behar zenien eta bozgorailua jarrita hitz egin behar zenuen.

Urtebete pasatutakoan, laguntza eskatzen hasi nintzen. Lehen ez nekien eskatzen. Beldur handiegia nuen. Kaskezurrean sartzen dizute inorekin ezin zarela fidatu, beldur handia sartzen dizute. Esaten dizute laneko adiskideaz ere ez fidatzeko. "Neska horrekin ibiltzen bazara, poliziari esango dio zuk agiririk ez daukazula, eta jaioterrira bidaliko zaituzte". Zuk zurea egin, eta bakarrik hobeto". Blokeatuta sentitzen zara. Ezin duzu zaborra atera, poliziak atzeman zaitzake eta. Ezin duzu fruta-dendara joan, hangoak poliziarengana joan daitezkeelako. Ezin duzu supermerkatuara joan, poliziari berria zarela esango diotelako eta salatu zaitzakelako. Ezin zenuen etxean zurekin bizi ziren nesken lagun min egin, harreman ona bageneukan planak egiteko edo elkarri abisatzeko aukera izango genukeelako. Gu etsaiak izatea nahi zuten. Etxean etsaiak bagina bezala jokatu behar genuen, bakoitza bazter batean jarrita; baina, kalean, lagunak ginen. Ez ziguten inolako kontakturik izaten uzten, bat iritsi berria bazen bi urte zeramatzan neskak orientatu zezakeelako. Adibidez, ni bilatzen ari nintzen telefonotegia hark ezagutzen zuen, eta lagunak izango bagina, ni hara eramateko aukera izango luke.

Hobeto egoten hasi nintzen mutil-lagunarekin hasi nintzenean. Morroiaren lagunik onena zen, baina haiek ez zuten ezer jakin izan. Etxera iristen nintzenean, gainerakoak bezala tratatzen ninduen; baina, ondoren, oso maitekorra zen nirekin. Bere poltsikotik ere jartzen zuen dirua, nire familiari bidaltzeko; zaindu egiten ninduen, ongi jateko. Amari deitzen zion, ama urduri zegoelako. Aitak hobeto zeraman. Neska azkarra naizela esaten zuen, ezin ninduela inork engainatu ikasketarik ez nuen arren.

Mutil harekin egoteak asko lagundu zidan. Amaitu nuen ordaintzen, eta handik hiru egunera, logela bat alokatzea erabaki nuen. Esan nien morroiari eta andreaki banindoala, eta esan zidaten gera nintekeela lasai asko han, izugarri maite nindutela, alaba baten modukoa nintzela. Nik ere oso maite nituela esan nien; gizonari, aita baten modukoa zela niretzat; baina hala ere banindoala. Gizon horrek botere handia du Afrikan. Diru asko eta etxebizitza asko dauzka. Jende horrekin onean egonda hobeto.

300 euro eman zizkidaten handik joan nintzenean. Oso ona izan nintzela esan zidaten, ez zutela arazorik izan nirekin, bete nuela. 300 euro eman zizkidan nire bizimoduari ekiteko, eta esan zidan: "nahi duzuenean, edozein arazo baduzu, hemen nago". Nik ere asko maite nuela esan nion, baina lasterka atera nintzen. Handik hiru hilabetera bisitan joan nintzen, neskatxa ikustera, maite nuen eta.

### ► Askatasunean

Atera nintzenean, kalean lan egiten jarraitu nuen sei hilabetez, baina nekatu egiten nintzen. Ez dut gustuko lan hura. Nik jartzen nituen neure baldintzak. Nik erabakitzen nuen noiz lan egin eta zenbat orduz. Euria ari bazuen, joan egiten nintzen.

Morroiareen etxetik atera nintzen hilean bertan, Zapateroren kanpaina batek zioen hiru hilabetez erroldatuta zeuden etorkinek NAN eskatzeko aukera zutela, kontratua izanez gero. Bezero batek mesede bat egin zidan: garbitzaile-kontratua egin zidan. Orduan, paperak eskatu nituen eta lortu nuen.

Ondoren, lana lortu nuen Valentziako pertsona helduen egoitza batean. Urtebete eta zazpi hilabete pasatu nituen egoitzan sukaldean laguntzen. Nire bezero bat mediku ospetsu bat zen. Egia esanda, kontaktu dezente lortzen dituzu: medikuak, abokatuak, udalean lan egiten duen jendea.

Sukaldeko laguntzaile gisa kontratatu ninduten, baina ondoren gaueko txandara pasatu ninduten gaztelaniaz ongi jakin gabe eta erizaintzako titulurik izan gabe. Hori ez zen legezkoa, bakarrik uzten nindutelako egoitzan. Hala ere, egunez 700 euro kobratzen genuen, 4 laguneko talde bat egonda, eta gauez, berriz, 1.000 euro ordaintzen zizuten zu bakarrik egonda. Gaueko hamarretatik goizeko seiak arte zaintzen egotea zen. Lisatzea eta pixoihalak aldatzea zen nire lana. Lanean bi hilabete neramatzeanean, aitona bat hil zen. Ez nuen inoiz hildako bat ikusi. Gaueko hamabietan aldatu nuen, baina goizeko hiruretan itzuli nintzenean, hilda zegoen.

Ikusi nuenean, oihuka atera nintzen egoitzatik. Pentsatu, goizeko hiruretan beltz bat herri batean oihuka! Andre batek poliziari deitu zion.

Arduradunari deitu eta aitona bat hil zela esan nion. Estaltzeko eta atea ixteko esan zidan. Eta nik esaten nuen: estali eta atea itxi?". Ezin nuen. Lasterka eta oihuka atera nintzen, eta bizilagun batek poliziari deitu zion. Polizia iritsi zenean, nondik nentorren galdetu zidaten. Egoitzako langilea nintzela esan nien. Hara eraman ninduten eta egoitzari isuna jarri zioten, nik ez nuelako titulurik eta ez zegokidan lan bat egiten ari nintzelako. Kalera bota ninduten. Astebetera deitu zidaten, paper batzuk sinatzera joateko. Ni CCOOn afiliatuta nengoen ordurako. Kitapena sinatu ondoren, ordaindu egin behar zidaten, baina ez nuen ezer jaso.

Beste lan bat atera zitzaidan, kale-garbitzaile. Bi urte pasatu nituen kaleak garbitzen. Biltegi batean, oinetakoen fabrika batean, kaxan oinetakoak ordenatzen eta garbitzen ere jardun nuen. Baina, une jakin batean, krisia zela eta, lanik gabe geratu nintzen eta lagun batek esan zidan haren senarrak bidaia bat egin behar zuela eta norbait behar zuela haurra zaintzeko. Bilbon ari zen lanean, eta hala iritsi nintzen Bilbora.

### ► Bilbon

Aldi baterako etorri nintzen Bilbora, lagunari laguntzera, eta gustatu zitzaidanez, bertan geratu nintzen. Valentzian adinako arrazakeriarik ez nuen sumatu Bilbon. Ez dut esan nahi ez dagoenik, baina pertsona beltzekiko arrazakeria handiagoa nabaritu nuen Valentzian.

Lehenik, Emaus izeneko garbiketaren enpresa batean jardun nuen, eta ondoren, Kooperan; dagoeneko, sei urte daramatzat.

2004an iritsi nintzen Espainiara eta 2008ra arte ez nintzen itzuli Nigeriara. Lau urte haietan ez nien ezer esan, baina 2008an hara joan nintzenean, zerbait kontatu nien.

Aitari esan nionean, morroi hura hil egingo zuela esaten zuen. Eta nik esaten nion: "Nola hilko duzu? Berak hilko zaitu zu. Botere handia du". Eta haserre erantzun zidan: "Zergatik engainatu zaitu?, ez dago eskubiderik. Jainkoak zigortuko du". Amak behea jo zuen. Esan zuen zerbaiten susmoa bazuela, gutxitan deitzen nuelako eta beti zegoelako norbait entzuten.

Hilabete pasatu nuen lagunarekin lanean, eta ondoren, Belgikara joan ziren. Orduan, gela bat alokatu nuen San Frantziskon. Neuk bilatzen nuen bizimodua. Gauez Gorte kalean lan egiten nuen eta egunez lan bila aritzen nintzen. Baina ez nituen kontaktu asko eta informazio gutxi neukan. Hasieratik elkarrekin ezin dugula hurbildu esanez beldurtzen gaituzte; horregatik ez nuen ezer galdetzen. Hain zuzen, urtebete eta sei hilabete neramatzen Bilbon eta ez nuen ia baliabide bakar bat ere ezagutzen eta ez neukan informaziorik. Gaixotzen banintzen, Valentziara joaten nintzen medikuarengana. Esaten ziguten elkarrekin eta erakundeetako jendea ez dela fidatzekoa, poliziarekin zerikusia duela.

Lan bila nenbilen egun batean Zabalburutik pasatu nintzen, Ertzaintzaren eraikinetik; baina ez nekien polizia zenik. Valentzian Ertzaintzaren Zabalburuko eraikinaren itxura zuten bulegoak zeuden. Gainera, jendea etengabe sartzen eta ateratzen ari zela ikusi nuen. Urtebetez baino gehiagoz, San Frantziskon eta Autonomian soilik ibili nintzen. Ez nuen beste lekurik ezagutzen. Orduan, Ertzaintzaren eraikinean sartu nintzen nire curriculumaz. Polizia jator bat suertatu zitzaidan eta hau esan zidan: "denbora gutxi daramazu hemen, ezta? Hau Ertzaintza da". "Zer da Ertzaintza?", galdetu nion. "Euskadiko polizia", erantzun zidan. Polizia ingelesez ari zitzaidan nik artean gaztelaniaz ez nuelako ongi hitz egiten. Hau esan zidan: "Lana bilatzen lagunduko dizun elkarrekin batera bideratuko zaitut". Eta Askabidera bideratu ninduen. Nik entzun nuen Askabideri buruzko zerbait kalean, baina elkarrekin hurbiltzeko beldur nintzen, poliziak sekretuak zirelakoan, eta ez nintzen inoiz joan.

Hala iritsi nintzen Askabidera eta baliabide askori buruzko informazioa eman zidaten. Nik ginekologoarengana joan nahi nuela esan nien, eta ginekologo batengana bidali ninduten. Horrela ezagutu nuen Hiesaren Aurkako Batzordeko Zuriñe. Bitartean lan bila jarraitzen nuen eta hilero joaten nintzen Valentziara han lagunak nituelako.

Valentziara joaten nintzenean, haurrentzako arropa eramaten nuen beti, txinoetakoa eta Carrefourrekoa. Baina lanik ez nuenez, garesti ateratzen zitzaidan, jantzi bakoitzak 10 euro balio zuelako. Egun batean, San Frantziskoko bigarren eskuko Emausen denda batean sartu nintzen, arropa erostera, gero Valentzian saltzeko; izan ere, marka onetako arropa zegoen: Lacoste, Zara. Valentziako lagunak dirua bidaltzen hasi ziren nik Emausen eta Kooperan erosketak egiteko. Hilero joaten nintzen eta ni ezagutzen hasi ziren. Ea seme-alabarik banuen galdetu zidaten, joaten nintzen bakoitzean lau haurrentzako adina arropa erosten nuelako. Lagun batentzat zela esan nien. Batzuetan, goiz osoa pasatzen nuen bertan arropa begiratzen, gustuko nuenaren bila.

Halaxe, egun batean nire curriculumaz utzi nien, eta bi aste geroago, Kooperan lanean hasteko deitu zidaten. Sei urte daramatzat lanean. Urtebetez bakarrik egon naiz kanpoan, haurdun egon nintzen urtean.

Nigeriako mutil-lagun bat izan nuen, eta elkarrekin urtebete pasa geramanean, haurdun geratu nintzen. Ordura arte gauza ondo zihoan, baina haurdun geratu nintzenean, hasieran hark baietz esan zuen, baina, gero, ez zuen haurra eduki nahi. Lau hilabeteko nengoen eta ezin nuen abortatu, eta bakarrik jarraitu nuen aurrera. Hark ez du umeaz arduratu nahi, eta gainera, ez du onartzen.

Batzuetan gogorra da ama ezkongabea izatea. Neskatoa lagun batekin utzi behar izaten dut sei orduz, lauretatik gaueko hamarrak arte, lanean egoten naitzelako. Lagunak 16:30ean jasotzen du eskolan, eta gero, ni joaten naiz haren bila hamarretan. Batzuetan oso gogorra egiten da, eskolarik ez duen egunetan are gehiago; bederatzi ordu pasatzen ditu, batzuetan, ni ikusi gabe. Baina aurrera goaz. Alaba aske izatea nahi dut eta nik baino aukera gehiago izatea.

Horren haritik, Hiesaren aurkako Batzordeko tailerrak ematera animatu nintzen Zuriñeren bidez, iritsi nintzenean ez nuelako informaziorik eta asko sufritu nuelako. Niretzat, informaziorik ez edukitzea infernua da. Nik horrekin asko sufritu nuen. Eta badakit emakume pila bat dagoela oso gaizki pasatzen, isilean. Horregatik, kalera atera nintzen Hiesaren aurkako Batzordearekin, informazio ematera eta orientatzera, neskek konfiantza izan dezaten. Oso sartuta dauka-gulako erakundeak ez direla fidagarriak. Nik badakit zer den ezertxo ere ez jakitea, informaziorik ez edukitzea. Horrelako egoera bat bizi arte ezin da ulertu hori. Batzordearekin lan hori egiten hasi nintzenean ere asko ez ziren nirekin fidatzen, poliziarentzat lanean ari nintzela uste zuten. Esaten dizute elkarrekin polizia sekretua direla, eta jendea harrapatzea eta jatorriko herrialdera bidaltzea dela haien lana.

Hala ere, gaur egun gero eta zailagoa da; elkarrekin asko daude, kontrol handiagoa eta zerbait susmatuz gero poliziarik deitzen dioten gero eta bizilagun gehiago. Uste dut lehen kontrola txikiagoa zela. Orain, adibidez, mutilek ez dituzte neskek beren etxebizitzetan sartzen. Gela bat alokatzen diete, baina ez beraiek dauden lekuan. Dena den, kartzelan jendea badago ere, egia da kontrola egon badagoela. Baina, bestetik, krisiaren eraginez, prostituzioak behera egin du. Uste dut gaur egun gehienak Marokotik etortzen direla beren kabuz; oso bidaia arriskutsua da eta salerosketan jarduten duten mafiak daude bidean.

Alabak informazio ona izatea nahi dut, oinarrizkoa izan dezala; ez dut BMW bat eskatzen, oinarrizkoa baizik. Alaba handitan medikua izatea nahi nuke, gus-tuko badu, ikasketa onak izatea, nik ikasteko aukera ematea berari, unibertsitatara arte, nahi badu. Emakume askea izatea eta aukeratzeko askatasuna izan dezala nahi dut. ■

# Oharrak

---

**1** Xaria, Islamaren legea ere esaten zaiona, Zuzenbide islamiarraren mamia da. Portaeraren kode xehatua da, eta hartan daude sartuta gurtza-moduei buruzko arauak, moralaren eta bizitzaren irizpideak, baimendutako edo debekatutako gauzak, ongia eta gaizkia bereizten dituzten erregelak. Dena den, erlijioarekiko identifikazioa zehaztu beharrekoa da: Islamaren baitan dagoen arren, ez da ez dogma bat ez eztabaidatu ezinezko zerbait, interpretatu beharrekoa baizik.

---

**2** Duela urte batzuetatik, mugak jatorrizko herrialdeetan jartzea Europatik ari da egiten, eta Espainian, segurtasun-politikak lehenetsi eta militar eta polizia ugari baliatuz migrazio-fluxuen kontrolaz itsutu dira errefuxiatuen eta migratzaileen giza eskubideak errespetatu ordez. Migrazio- eta asilo-politikak etengabe eta gero eta gehiago gogortzeak ihesa indarkeria mota berri bat bihurtu du, eta ondorio larriak ditu errefuxiatuen eta migratzaileen giza eskubideetan, eta izenpetutako nazioarteko hitzarmenak eta itunak urratzen ditu (CEAR- Euskdiren Asilo-hiztegia)..

---

**3** Kapital kulturalaren kontzeptu soziologikoa Pierre Bourdieuk sortu eta hedatu zuen. Autoreak dioenez pertsona batek dituen ezagutzak, hezkuntza, abileziak eta abantailak, eta haiei esker gizartean lortzen duen estatus altuagoa da kapital kulturala. Hasiera batean, gurasoak dira haurrari nolabaiteko kapital kulturala ematen diotenak, gaur egungo hezkuntza-sisteman garatzeko beharrezkoak dituzten jarrerak eta ezagutzak emanez, eta geroago, ikastetxeetan eta eguneroko bizitzako egoeratan finkatzen dituzte.

---

**4** Amaia Pérez Orozcok (2014) Mesoamericanas en Resistencia por una Vida Digna elkarteko kideei esker berreskuratu zuen miaketaren ekonomiaren kontzeptua, Ekonomia Feministaren IV. Biltzarran Prestatzeko Topaketetako hitzaldi batean erabili baitzuten, «Elkarrekin pentsatzea, pertsonen zerbitzura egongo den ekonomiarako ekintzak artikulatuz », 2013ko otsailaren 27an.

---

**5** DSBE: Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko errenta oinarritzko premiei lotutako gastuei nahiz gizarteratze- edo laneratze-prozesuak dakartzan gastuei aurre egiteko behar adinako diru-sarrerak ez dituzten bizikidetz-unitateetako kideentzako aldian behingo eta jatorri ekonomikoko eskubide subjektibozko prestazioa.

---

**6** Helduen Hezkuntzak (HHE) oinarritzko prestakuntza eskaintzen du; hau da, alfabetatetik Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzeraino doan prozesua eskaintzen du..

# Bibliografía

- Balash, Marcel eta Marisela Montenegro (2003):** "Una propuesta metodológica desde las producciones narrativas", *Encuentros en Psicología Social*, 1(3), 44-48.
- Cabruja, Teresa, Lupicinio Iñiguez eta Félix Vazquez (2000):** "Cómo construimos el mundo: relativismo, espacios de relación y narratividad", *Análisi. Quaderns de Comunicació i Cultura*, 25, 61-94.
- CEAR- Euskadi (2017). Refugiadas:** La trata con fines de explotación sexual en el contexto de militarización y cierre de fronteras. Bilbo.
- Federici, Silvia.(2013).** *Revolución en punto cero: trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*. Madril:Traficantes de sueños.
- Foucault, Michel.(1976).** Historia de la sexualidad vol.I. La voluntad de saber. *Madril: siglo XXI*.
- Gergen, Kenneth J. (1985):** "The social constructionist movement in modern psychology", *American Psychologist*, 40(3), 266-275.
- Gergen, Kenneth J. eta Mary Gergen (1983):** "Narratives of the self", en SARBIN, Theodore eta Karl Scheibe (eds.): *Studies in social identity*, Praeger, New York,225-273.
- Goolishian, Harold.(1994).** Narrativa y self. Algunos dilemas posmodernos de la psicoterapia.*Morin, Guattari, Pearce, Elkaim eta beste batzuk. Nuevos paradigmas, cultura y subjetividad*, 293-306.
- Haraway, Donna (1995):** *Ciencia, cyborg y mujeres.La reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madril.
- Harvey, Davis.(2004).** El " nuevo" imperialismo:acumulación por desposesión.*Socialistregister*.
- Manciaux, Michel., Vanistendael, Stefan., Lecomte, Jacques., &Cyrulnik, Boris.(2001).** La résilience:état des lieux.*Cahiers medico sociaux*, 13-20.
- Pérez Orozco, Amaia.(2014).** *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. España:Traficantes de sueños. ProgrammePaper, (3).
- Pujol, Joan eta Marisela Montenegro (2013):** "Producciones narrativas:una propuesta teórico-práctica para la investigación narrativa", en RODIGOU, Maite eta Horario PAULÍN (eds.):*Coloquios de investigación cualitativa:desafíos en la investigación como relación social*, Socialex, Kordoba, 15-42.
- Romero Bachiller, Carmen.(2007).** El exotismo de los cuerpos y la fetichización de la mirada en la producción de las «mujeres inmigrantes» como «otras». *MJ Sánchez Leyva & A. Reigada (Coords.), Crítica feminista y comunicación*, 186-214.
- Ross, Fiona.(2006).** "La elaboración de una Memoria Nacional:la Comisión de Verdad y Reconciliación de Sudáfrica", *Cuadernos de Antropología Social*, 24, 51-68.
- Sassen, Sassen.(2015).** *Expulsiones: brutalidad y complejidad en la economía global (Vol.3090)*. Katz editores.
- Segato, Rita.(2016).** *La guerra contra las mujeres*.Madril: Traficantes de sueños.
- Theidon, Kimberly (2009):** "La teta asustada: una teoría sobre la violencia de la memoria", *Ideele: Revista del Instituto de Defensa Legal*, 191.
- Women's Link Worldwide (2009):** Los derechos de las mujeres migrantes, una realidad invisible.
- Women's Link Worldwide (2015):** La trata de mujeres y niñas nigerianas: *esclavitud entre fronteras y prejuicios*.